



GASTEIZEN SEXU ETA GÉNERO DIBERTSITATEAREN AURKA IZANDAKO ERASOEI BURUZKO TXOSTENA



## EDIZIOA

Lumagorri Heterosexismoaren aurkako taldea  
Elkartea

## DATUAK

Gasteizko Transbollomarika sareak jasotako datuak

## ELKARLANA

Gasteizko udala  
Berdintasun zerbitzua

GASTEIZEN SEXU ETA  
GÉNERO DIBERTSITATEAREN  
AURKA IZANDAKO ERASOEI  
BURUZKO TXOSTENA

2017ko APIRILA - 2018ko APIRILA

# GLOSARIOA

«**Zuzeneko diskriminazioa**»: egoera berean edo antzekoan egonda, pertsona bati beste bati baino tratu okerragoa ematen zaionean, haren sexu-orientazioagatik, género-adierazpen edo identitateagatik edo familia-talde baten kidea izateagatik: hara hor noiz dagoen zuzeneko diskriminazioa.

«**Zeharkako diskriminazioa**»: itxuraz neutroa den xedapen, irizpide edo praktika batek desabantaila berezi bat ekar badakieke pertsona batzuei, euren sexu-orientazioagatik, género-adierazpen edo identitateagatik edo familia-talde baten kideak izateagatik: hara hor noiz dagoen zeharkako diskriminazioa.

«**Askotariko diskriminazioa**»: orientazio sexualagatik, género-adierazpen edo identitateagatik edo familia-talde baten kidea izateagatik diskriminatua izateaz gain, beste mota baten diskriminazioa ere jasaten denean, nazioarteko edo Estatuko legeetan jasotako motiboak direla-eta: hara hor noiz dagoen askotariko diskriminazioa. Bereziki hartuko da kontuan beste faktore batzuk gehitu badaitezke género-adierazpen edo identitateagatik edo familia-talde baten kide izateagatik gerta daitekeen diskriminazioari, hala nola immigrantea edo ijito-herriko kidea izatea.

«**Diskriminazioa, harreman baten oinarrituta**»: LGTBI den pertsona, talde edo familia batekin harremana izatearen ondorioz egiten denean diskriminazioa.

«**Diskriminazioa, uste oker batean oinarrituta**»: iritzi oker baten ondorioz norbait diskriminatzen denean, haren sexu-orientazioagatik, género-adierazpen edo identitateagatik (lagun bat zein talde bat diskriminatu daiteke).

«**Jazarpen diskriminatzailea**»: norbaiten duintasunari eraso egitea edo kikilduta, areriotzat joa, makurrarazita, irainduta edo laidoztatua sentiarazteko giroa sortzea helburu edo ondorio duen jokabide oro da jazarpen diskriminatzailea, sexu-orientazioagatik, género-adierazpen edo identitateagatik edo talde bateko kide izateagatik egiten dena.

«**Errepresalia diskriminatzailea**»: norbaitek tratu txarra edo ondorio txarren bat jasotzen duenean, sufritzen ari den edo sufritu duen diskriminazioa edo jazarpena saihesteko, gutxitzeko edo salatzeke asmoz, kexa, erreklamazio, salaketa, demanda edo edozein motatako errekurtsio bat aurkeztu duelako.

«**Bigarren mailako biktimizazioa**»: lesbiana, gay, transexual, bisexual, transgénero eta intersexualei gehitzen zaien kaltea, diskriminazioa, jazarpena edo errepresaliaren biktimak izateaz gain, beste ondorio batzuk ere sufritzen dituztenean arreta txarra edo desegokia ematen dietelako administrazio-erakundeek, osasun-erakundeek, poliziak edo gaian zerikusia duen beste edozein eragilek. Batzuetan, inplikaturako beste eragile batzuen jardueraren ondoriozkoa izaten da.

«**Intragénero indarkeria**»: ekintza biolentoak dira, sexu bereko bikote bateko bikotekide baten osotasun fisikoan, psikikoan, moralean edo bizitzan eragiten dutenak, eta bikotekideen arteko desberdintasun-egoera eta botere-harremana adierazten dutenak. Ekintza horiek ezkontide-ohien edo ezkontideen aurka egiten dira, edo, bikotekideen arteko elkarbizitza egon ez den arren, noizbait ezkontzaren bidezko antzeko harremanen bidez lotutako pertsona baten aurka.

«**Género-indarkeria**»: gizon batek emakume baten kontra erabiltzen duena, emakumea diskriminatzeko eta gizonak emakumeen aldean historikoki izan duten abantailazko eta desberdintasunezko posizioari eusteko.

«**Iseken delitu arina**»: arau-hauste bat da, eta honetan datza: mehatxatzean, jazarpena egitean, kaltea eragitean edo sufriaraztean.

«**Bullying-a**»: ikasleen artean behin eta berriz errepikatzen den tratu txar psikologikoa, edozein motatakoa dela ere: ahozkoa zein fisikoa.

«**Cruising-a**»: sexu-harremanak izateko baliatzen diren aisialdi eta olgeta-espazioak. Gehien bat, gay kolektiboak erabiltzen dituzten espazio horiek.

# AURKIBIDEA

1. HITZAURREA

2. HELBURUAK

3. ORAINGO TESTUINGURUA

4. METODOLOGIA

5. DATUEN AZTERKETA

6. ISLA KOMUNIKABIDEETAN ETA ERANTZUN-EKINTZAK

7. EZTABAIDA ETA ONDORIOAK

8. GOMENDIOAK

9. BIBLIOGRAFIA

# 1. HITZAURREA

Gasteizko Sare Transbollaririk jasotako datuak biltzen ditu txosten honek, zehazki, Arabako hiriburuan, 2017an, sexu-orientazioan eta género-identitatean oinarrituta izandako delituen egoerari buruzkoak. Gasteizko udalerrian gai horri buruz egiten den lehena da, eta, agerian uzten duenez, sexu-orientazioan edo género-identitatean oinarrituta bertan izaten diren gorroto-delituak ikusita, badago gai horren gaineko toki-behatoki bat abian jartzeko premia.

2017a bereziki larria izan da gure udalerrian LGTBI taldearen aurka izandako erasoei dagokienez. Mota honetako lehenengo txostena denez, ez dugu aurrekaririk; baina egiaztatu dezakegu, ordea, izaten diren erasoei Gasteiztik bertatik erantzun antolatu bat abian jartzeko premia dagoela, aparteko egoera bati erantzuteko, zeina lehenik datorren arren detektatu barik zegoen.

Hiriko espazio jakin batean zenbait eraso izan ziren gizonezko homosexualen aurka, bata bestearen atzean. Horixe izanik inflexio-puntua, egondako eraso guztien laburpena egiterakoan argira atera dugu benetako egoera, lehenik ere susmatzen genuena; hauxe: LGTBI pertsonen aurkako gorrotoa oso presente dago gure hirian.

Txostenean ikusiko dugunez, arau heterosexuala eta género-binarismoa betetzen ez ditugun pertsonen aurkako eraso asko ez dira erraz antzematen. Izan ere, oso desberdinak izaten dira gorroto-mailak, eta, maiz askotan, kasurik larrienak baino ez dira agerian jartzen: hilketak, eraso fisikoak edo gorroto-adierazpen publikoak.

Azken urteko eskarmentuak eta handik **ateratako ondorioek berriz erakusten dutenez, badago premia tokiko behatoki bat ezartzeko sexu-orientazioan eta género-identitatean oinarrituta Gasteizen izaten diren gorroto-delituen aurka, LGBTI-ok gure udalerrian nozitzen dugun errealitatea gertuagotik ezagutzeko gauza izan beharko lukeena.**

Zigor Kodean eta zenbait lege eta erregelamendutan jasotako delituetatik haratago joz, hemen mota guztietako gorabeherak islatzen ditugu, guztiak 2017an gertatutakoak, eta sexu-orientazio eta género-identitatearekin zerikusia dutenak.

## 2. HELBURUA

Gure gizartean landu barik dagoen espazio bat betetze aldera egin dugu txosten hau. Gure ustez, jarraitutasuna izan beharko luke, eta sexu-orientazioan eta género identitatean oinarrituta egiten diren gorroto-delituen kontrako tokiko behatoki baten bidez egin beharko litzateke. Izan ere, **pertsona batzuk jasaten ari diren erasoen berri ez da iristen ari erakundeetara eta epaitegietara** (sexu-orientazio eta género-identitatearekin zerikusia duten erasoez ari gara beti). Horren seinalea da, hain zuzen, oso salaketa gutxi agertu direla azken bi urteetan Barne Ministerioak LGTBI kolektiboarekiko gorroto-delituei buruz argitaratzen duen txostenean. Gainera, **EAEko erakundeek jada abian jarri dituzten ekimenak ez dira betetzen ari espazio hori gure hirian** (hori gertatzen da, esaterako, Berdindu zerbitzuarekin). Kontuan hartu behar dugu oraindik ere biktimek jarraitzen dutela errezelo eta mesfidantza handia sentitzen erakundeetara joaten direnean gertatu zaiena kontatzeko, zelan erantzungo ote dieten beldur.

Izan ere, geure eta besteen esperientziatik abiatuta, hau guztia onartzeko joera izaten dugu LGTBI kolektiboan:

- LGTBI kolektiboak berak erasoak onartzen ditu, hein handi batean; are gehiago: zilegitzat jotzen du bere kideei eraso fisikoak edo ahozkoak egitea.
- LGTBI kolektiboa oso ezkutatua egon da gizartean; eta, izatez, haren kideen ikusezintasun handia dago oraindik ere.

Gure lehenengo helburua da, horregatik, lesbiana, gay, transexual eta bisexuali mezu hau helaraztea: erasoak ezin onartuzkoak dira beti, eta, erasorik egonez gero, funtsezkoa da haien berri jasotzea eta jendaurrean salatzea. **Erasorik ez erantzunik gabe.**

Gure bigarren helburua da eremu egoki bat bermatzea edozein pertsona gauza izan dadin zera antzemateko: eraso bat egon dela, eta eraso horrek zerikusia duela sexu-orientazio edo género-identitatearekin. Horrez gain, bermatu gura dugu erasoaren berri emateko eta salatzeke mekanismoak ere ezagutuko dituela jende orok. Horretarako, funtsezkoa da behin eta berriz errepikatzea LGTBlok ikusgai bihurtu behar dugula: “armairuan egotea” beste eraso sozial mota bat delako, eta eraso hori ere errotik ezabatu behar dugu.



# 3. ORAINGO TESTUINGURUA

## Gorroto-delituak eta haien kontaketa

Hona zer den gorroto-delitu bat, Europako Segurtasun eta Lankidetzako Erakundearen arabera: zigor-arloko arau-hauste oro, pertsonen edo jabetzen aurkako arau-hausteak barne, non biktima, lokala edo arau-haustearen helmuga talde batekiko lotura, sinpatia, afiliazioa, babesia edo kidezagatik aukeratzen da, benetakoa edo imajinatuta izanda ere. Talde horretako kide guztiek ezaugarri komun bat izan behar dute: arraza jakin bat edo arraza jakin batekoa izateko itxura, jatorri nazionala edo etnikoa, hizkuntza, kolorea, erlijioa, sexua, adina, ezintasun intelektuala edo fisikoa, sexu-orientazioa edo antzeko faktoreren bat.

Bereiztu behar ditugu gorroto-delituak, zigor-arloko legeetan ezartzen diren bezala, bestelako gorabeheretatik, hala nola homofobia, lesbofobia, transfobia eta bifobiatik, hau da: sexu-orientazioarekiko edo género-identitatearekiko aurreiritzietan edo gorrotoan oinarrituta, norbait iraintzea, mehatxatzea edo irrigarri uztea edo norbaiti lapurtzea edo ostea, eraso fisikoa egitea edo zerbitzu bat ukatzea, betiere biktimaren edo hirugarren baten irizpidearen arabera, edo lekuko batena edo beste norbaitena, zeinari biktimak gorabeheraren berri eman baitio.

Oso garrantzitsua da zera azpimarratzea: **gorabehera guztiak ez direnez gorroto-delitutzat jotzen legeetan, administrazioek ez dituzte eraso-mota guztiak kontatzen**. Funtsezkoa da hori jakitea ulertzeko zergatik ez datozen bat elkarteok eta mugimenduok eta administrazio publikoetako erakunde ofizialek jasotako datuak izan diren erasoei buruz.

Pertsonak duten edo beste pertsona batzuek esleitzen dieten sexu-orientazioan eta género identitatean oinarrituta izandako erasoei buruz ondo dokumentatutako patroiei erantzute aldera, 2016. urtean, giza eskubideen gaineko aditu-talde



bat elkartu zen, Yogyakarta (Indonesia), sexu-orientazioarekin eta género identitatearekin lotutako nazioarteko printzipio batzuk ezartzeko. Yogyakarta printzipioak izan ziren bilera horren emaitzak, hau da: zenbait nazioarteko lege-printzipio,

sexu-orientazioari, género-identitateari eta nazioarteko zuzenbideari buruz. Estatu guztiek bete beharreko estandarrak jasotzen dituzte. Estatuak ez dituzte, ordea, printzipio horiek itun baten bidez hartu, eta, horrenbestez, oraindik ez dira, berez, giza eskubideen nazioarteko Zuzenbidearen tresna lotesle bat.

## Nondik dator sexu-orientazioan eta género-identitatean oinarritutako gorrotoa?

Ikuspegi intersekzional eta feminista batetik baino ezin da zerbait jakin sexu-orientazioan eta género-identitatean oinarritzen den gorrotoaz. Ezin ditugu ulertu matxismoa eta LGTBfobia esparru estankoak balira bezala. Aitzitik, "ontzi komunikatuen" estiloko azterketa egin beharra dago, gizartean ezarritako sistema patriarkalak eragiten duen opresio baten aurrean baikaude.

Gaur egun, kultura matxistak sistema generiko binario bat ezartzen du, "gizona" eta "emakumea" bereizten dituen: alde batetik, binarismo horren barruan onartzen ez den identitate oro zigortu eta baztertzen du, eta, beste alde batetik, "gizonaren" menpe jartzen du "emakumea" dena, gizon-kategoria hori baino ez baitu ezartzen hierarkia sozialaren gailurrean. Gainera, bien arteko harremana, ikuspuntu matxista batetik, heterosexualtasunaren arauaren pean baino ez da ulertzen, eta arau horren barruan edozein disidentzia zigortzen da.

Ezarritako sexu-género sistemaz gain, mota askotariko opresioak izaten dira, eta ekuazio horri gehitzen zaizkio, honako faktore hauek guztiak direla-eta: klase soziala, jatorria, talde bateko kidea izatea eta gaitasun ekonomikoa. Horrela, bada, iradokitzen diguten gizartean, botere-posizio batean dago "gizon" **zuria, diruduna eta heterosexuala, eta posizio horretatik menperatzen eta zapaltzen ditu beheragoko kategorietan daudenak.**

Ikuspuntu horretatik, errebindikazio feministek eta heterosexismoaren aurkako borrokak etsai berbera izan behar dute, bien opresioen jatorria dena.

Zenbait kategoria ezartzen dira, erantzuna emateko artikulazio politiko gisa, eta kategoria horiek etengabe zalantzan jartzen dira, ez baitira errealitate sozialera egokitzen. Tresna politiko gisa, ordea, baliagarriak dira patriarkatua errotik kentzeko. Hala, LGBTBI sigla bera ere zalantzan jartzen dugu aktibistok; pertsona mota askoren identitatea ontzi estankoen kategorietan sartzea baino ez baitu egiten. Helburuak lortzeko borrokaren gerturatze politiko gisa baliatzen ditugu kategoria horiek, baina ez, ordea, oso askotarikoa eta konplexua den pertsona-talde

bat ordezkatzeko.

## LGTBI pertsonen ikusezintasuna

Azterketari ekin aurretik, zera azpimarratu behar dugu: Gasteizen ere, LGTBI garenok ikusezintasuna dugu gaintitu beharreko erronkarik handiena. Funtsezko Eskubideen Agentziak 2013an Europar Batasuneko LGBT pertsonen egindako inkestaren arabera, LGBT direnen % 48 agertzen dira beren senideen aurrean diren bezalakoxeak, ezkutatu barik, eta % 28k ez dio inori esan LGBT dela, edo adiskide gutxi batzuei baino ez. Lankideen edo ikaskideen aurrean % 21k baino ez du erakusten benetan zelakoa den. Inkesta egin zaien % 50en ustez, bizitoki duten herrialdeetan LGBT diren pertsonen aurkako adierazpen iraingarriak egin ohi dituzte politikariek. Bi heren ahalegintzen dira sexu bereko bikotekidearen eskutik helduta ez joaten jendaurrean, beldur direlako ez ote dieten erasorik, mehatxurik edo jazarpenik egingo, halaxe ibiliz gero. Proporzio hori hiru laurdenarena da gay edo bisexual diren gizonezkoen artean. Inkestatutakoen % 50 ez da leku jakin batzuetara joaten, beldur delako ez ote dioten erasorik, mehatxurik edo jazarpenik egingo LGBT taldeko kidea izateagatik. Hori bereziki aplikatu daiteke garraio publikoa, kalea edo beste leku publikoei dagokienez, bai eta eraikin publikoei dagokienez ere.

**Gasteizen ere, ikusezintasuna erabiltzen da autodefentsarako estrategia gisa.** Beste leku batzuetan jarraitzen dute, oraindik ere, kartzela-zigorrak ezartzen, bai eta zigor-heriotza ere, homosexuala izateagatik. Bada, gu alde horretatik leku atseginago batean bizi garen arren, hemen ere “armairutik irteteko” beldur handia dabil oraindik, kultura matxistaren eraginez, zeina oso sartuta baitago gurean. Nolabait azpimarratu beharko genuke disoziazio bat dagoela, testuinguruaren arabera. Gaur egun, LGTBI asko ikusgai dira eremu jakin batzuetan (familiar, lagunartean, espazio pribatuetan), bai hala da, baina argi dago ere oraindik salbuespena izaten dela eremu guztietan ikusgai izatea, eta oraindik badabilela erasoak salatzeko beldurra. Izan ere, nonahi ikusgai izatea oraindik salbuespena da kolektiboaren barruan.

## Salaketa jarri nahi ez izatea

LGTBI elkarteok eta mugimenduok kontabilizatzen dugun eraso-kopurua beti izaten da datu ofizialena baino handiagoa; kasu gehienetan, eraso bat sufritu dutenek salaketarik ez jartzea erabakitzen baitute.

Funtsezko Eskubideen Europako Agentziaren arabera, diren delituen % 90 ez dira salatzen; beraz, oso garrantzitsua da gure duintasunari eraso egin zaion kasu guztiak agerian uztea. Bada, egiaztatu dugunez, gurean, guk ezagututako kasu bat bera ere ez da Arabako Fiskaltzara heldu.

Zergatik ez da salaketa jartzen? Erabaki hori konplexua da, eta arrazoi asko egon daitezke hori gertatzeko. Ohikoena izaten da familian eta lagunartean ikusezintasunari eustea, lan-, familia-eta gizarte-eremuan errepresaliak saihestea, edo prozesu judizial bati ez ekitea nahiago izatea, prozesu hori ez ohi baita oso atsegina izaten.

## Erasoak antzemateko arazoak

Maiz askotan, hauxe gertatzen da eraso fisiko baten aurrean: eraso nozitu duenak osasun-zerbitzuetara jotzen du, eta hantxe lesio-parte bat egiten diote, baina biktimak ez du azaltzen erasoan gorroto-osagai bat egon dela, eta, horrenbestez, eraso gorroto-larrigarririk gabekotzat joz egiten dira tramiteak. Horrela jokatzek zailagotzen du, are gehiago, sexu-orientazioan eta género-identitatean oinarritutako gorroto-delituak antzematea; ez baita inolako protokolorik abiatzen, eraso matxistak egon direla susmatzen denean ez bezala.

Azpimarratu behar dugu LGTBlok garelako sexu-orientazioan eta género-identitatean oinarritutako gorroto-delituen helburu nagusia. Dena den, akats-bat dela medio ere izaten dira diskriminazio-kasuak, hau da, batzuetan, eraso homofobo, lesbofobo edo transfoboak nozitzen dira, ezinbestez LGTB ez diren sexu bereko pertsonen arteko estimu- edo maitasun-jardueren ondorioz.

## Sexu-orientazioan eta género-identitatean oinarritutako gorroto-delituen legedia

Arau-esparruari dagokionez, azpimarratu behar dugu, bestalde, Euskadik ez duela inolako lege espezifikorik lesbianen, gayen, transexualean, bisexualen eta intersexualen eskubideak bermatzeko. Eta, horren ondorioz, gorroto-adierazpen batzuk ez daude jasota Zigor Kodean

Aitzitik, EAEk badauka ekainaren 28ko 14/2012 Legea, transexualak género-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa. Haren helburua da, hain zuzen, transexualei beren premiak osorik eta egokiro

aintzat hartzeko eskubidea bermatzea, premia horiek medikoak, psikologikoak, juridikoak eta beste edozein motatakoak izanik ere, eta gainerako herritarren baldintza berdinetan.

## 2017ko delituen txostena

Euskal Autonomia Erkidegoko Delituen Txostenaren arabera, 2017an, guztira 129 gorroto-delitu eta diskurtso kontabilizatu dira (87 Bizkaian, 32 Gipuzkoan eta 10 Araban). Iaz, 124 izan ziren. Eremuaren eta testuinguruaren arabera, hauek izan ziren: 71, arrazakeria eta/edo xenofobia direla eta; 32, sexu-orientazioa edo identitatea direla eta; 16, ideologia dela eta; 7, sinesmen edo praktika erlijiosoak direla eta; 2, ezintasuna dela eta; eta 1, aporofobia dela eta (pobreekiko fobia). Sexu-orientazioa edo género-identitatean oinarritutako gorroto delituetatik (32, guztira), bi Araban izan ziren, eta kasu bat argitu egin zen.



Hau da, Araban, ofizialki, bi gorroto delitu baino ez ziren egin 2017an, sexu-orientazioan edo género-identitatean oinarrituta. Datu hori ez dator bat, ordea, txostenean jasotako datuekin.

## Gasteizen bizi garen LGBTI on errealitateei buruzko diagnostikoak antzemandako ahultasunak

Diagnostikoak argiro ondorioztatzen duenez, oro har LGBTI kolektiboko kideok ahultasun komun batzuk ditugu talde horretako kideak izate hutsagatik. Izan ere, gizarteak, heteroarauari eta binarismoari men eginez, baztertzeko arautik kanpokotzat jotzen dituen pertsonak haien sexualitateagatik edo géneroagatik. Eta bazterkeria horiek modu hauetan jartzen dira agerian:

LGTBI garenok nozitzen ditugun erasoak: eraso fisikoak (kolpeak, jipoiak), ahozkoak (komentario barregarriak eta umiliagarriak,...) eta batez ere pertsona ugarik egunero jasotzen dituzten begiradak: jakingura gaiztoa, mespretxua eta garen bezalakoak izatea kuestionatzen dutenak. Azpimarratu behar da, bestetik, eraso horiek eremu jakin batzuetan izaten direla: batez ere eremu publikoan (festetan, aisialdi-lekuetan...), heziketakoan eta kirolekoan. Diskriminazioak sufritzen ditugu, eskubideak berdintasunean eta justizian gauzatzea eragozten dutenak:



LGTBI izateagatik bakarrik ez, bai eta xenofobian eta arrazakerian oinarrituta izaten direnak ere. Diskriminazio horiek oso lotuta daude pertsona guztiak heterosexualtzat jotzearekin, eta joera hori zenbait lekutan ikusten da: pertsonen tratamenduan, bete beharreko formularioetan, aisia eta kultura-jardueren planifikazioan, erakundeen kanpainetan, zerbitzuei buruzko informazioan, eta abar.

**Irudipen hau izatea: administrazioei ez zaizkiela interesatzen LGTBI garen arazoak eta premiak, eta bigarren kategoriakotzat jotzen gaituztela.** Gurea LGTBIfobiaren maila-esanguratsu samar duen hiri bat izanik, hau guztia falta zaio, besteak beste: LGTBIfobiaz jabetzeko eta sentikortzeko kanpainak, arazo soziala baita, LGTBI garenona baino; LGTBIfobiaz jasaten ditugun erasoei aurre egiteko protokoloak; LGTBIfobia sufritzen duten pertsonen laguntzeko zerbitzuak; erantzunak etengabeko erasoen eta ahultasun-egoera espezifikoaren aurrean, eta prestakuntza udaltzaingoan, udaltzainek beste era batez jokatu dezaten, batez ere hiriko esparru arriskutsuetan.



# 4. METODOLOGIA

2017an, aldaketa nabarmenak izan ditu erasoak antzemateko aplikatzen den metodologiak, premien araberakoak. Izan ere, aurreneko urtea izan denez erasoak antzemateko antolakuntza martxan jartzen, egoerari egokitu gara. Garatu ditugun faseen laburpen kronologiko bat egiten dugu hemen, bai eta izan ditugun kontaktu desberdinena ere.

## LGTBifobian oinarritutako erasoak antzematea

2017ko lehenengo sei hilabetean, LUMAGORRI elkartetik egiaztatu dugu erasoek gora egin dutela Gasteizen, batez ere gizonezko homosexualen aurka hiriko espazio jakin batean izandakoak. Dinamika hori luzatu zenez denboran, alarma guztiak piztu ziren, behin eta berriz errepikatzen zelako eskema berbera. Gertaera horien aurrean, protokolo bat jarri genuen abian, eraso-kopurua handitu izanari erantzuna emateko eta erasoak sufritu dituzten pertsoneri laguntzeko. **Horrela sortu zen Gasteizko Sare Transbollomaria, eraso horiei aurre egiteko erantzun antolatua emateko helburuz.**

Erasoen lehenengo salaketa publikoa 2017ko ekainean izan zen. Hori gertatu ostean, aipatu **sareak hiritarren eskura jarri zituen kontaktu-telefono bat eta informazio agiri bat: lehena, hara deituz erasoak salatu ahal izateko, eta sexu-orientazioan edo género-identitatean oinarritutako erasoren bat jasoz gero jarraitu beharreko jarraibideen berri emateko, bestea.**

**SI SUFRES UNA AGRESIÓN TRÁNSFOBA, LESBÓFOBA, HOMÓFOBA...**

Intenta conservar la calma. Si hubiera **testigos**, consigue su número de teléfono para poder contar con su apoyo a la hora de que se investiguen y juzguen los hechos.

Si estás sola, llama a una persona **amiga** de confianza para que te apoye.

Si has sufrido daños físicos y/o psicológicos acude a un **hospital** o Centro de Salud para recibir atención.

Puedes llamar directamente a la **policía**, que tiene que levantar un parte sobre la agresión, que servirá de prueba. Además, la policía puede localizar a los autores en las inmediaciones.

**Ponte en contacto con nosotros en**

transbollomaria.sarea@gmail.com  
Transbollomaria sarea  
@Transbollomarik

☎ 633 309 653

**EN EL HOSPITAL.**

Es muy importante insistir al personal médico que nos atiende **que las heridas o los daños que presentamos son fruto de una agresión trans/bollo/marika-foba**, para que así quede reflejado en el correspondiente parte de lesiones.

**DENUNCIA.**

Ante una agresión, ¡denuncia! **No te calles.** Sólo tienes seis meses, cuanto antes lo hagas, mejor.

Puedes hacerlo en una **comisaría** o en el **Juzgado**.

Es muy importante que vayas con compañía a presentar la denuncia formal; puedes contar con una persona cercana y, por supuesto, con nosotros.

Para que la agresión sea calificada como un **delito de odio** es necesario, además de firmar la denuncia, que en ésta aparezcan todos **tus datos** y que aportemos todos los **detalles posibles de la agresión**.

Es muy importante **señalar todo aquello que pueda probar que la agresión se ha producido porque somos trans, lesbianas o gays.**

Si te encuentras en situación administrativa irregular (*sin papeles*), ponte en contacto con CLEAR (tlf: 945 26 68 05). Allí te podrán ayudar, apoyar y acompañar en todo el proceso.

Ante cualquier **duda o problema** que te encuentres, **contacta con nosotros.** Es necesario que la sociedad sepa que sigue existiendo este odio y que por ello lo combatimos.

Y, sobre todo, **no pienses que la agresión ha sido culpa tuya, jamás.**

**Si eres testigo de una agresión.**  
Observa, pregunta, **actúa**, no lo ignores.

**OFRECE TU AYUDA.**

**ERASO TRANSFOBO, LESBOFOBO, HOMOFOBO... BAT JASAN BADUZU. EZ ZAITEZ ISILDU**

transbollomaria sarea

**STOP! TRANSFOBIA LESBOFOBIA HOMOFOBIA**

Telefonoa eta informazio-kanpaina martxan jarri zenetik, zenbait lekukotasun jaso ditugu gure udalerrian pertsona LGTBI-ei eragindako erasoei buruz. Datuen azterketaren atalean azpimarratutakoak dira. Lehenik eta behin, telefono bidez guregana jotzen zutenen lekukotasunak jaso genituen, hitzez hitzekoak. Hori egin ostean, hitzordua ezarri genuen pertsona horiekin, beren egoera patxada handiagoz eta luzaroan azaltzea izan zezaten. Dinamika horrekin jasotako zenbait kasu aztertu ostean, fitxa-eredu bat egin genuen, bertan bildutako informazioa jasotzeko eta sailkatzeko, kasu bakoitza tratatzerakoan operatiboagoak izate aldera.



<b>LGTBIFOBIA KASUEN ERREGISTROA</b> <b>REGISTRO CASOS DE LGTBIFOBIA</b>		Data/ Fecha
		Expediente Abk. /Código del expediente
<b>EMITITZAREN DATUAK / DATOS DE LA VÍCTIMA</b>		
<b>IZEN ABIZENAK</b> Nombre y Apellidos		
	<b>DNI/NIE</b>	<b>ADINA / edad</b>
<b>IRASKETIAK</b> Nivel de Estudios		
<b>GENERO IDENTITATEA</b> Sexo / Identidad	<b>DESIOA</b> Deseo	
<b>HELBIDEA</b> Domicilio	<b>HERRIA</b> Población	
<b>POSTA KUTXATILA</b> Código Postal	<b>TELEFONGA 1</b> Teléfono 1	
<b>HELBIDE ELEKTRONIKOA</b> Correo electrónico	<b>TELEFONGA 2</b> Teléfono 2	

En cumplimiento de la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal (en adelante, LOPD) y su normativa de desarrollo (RD 1720/2007) le comunicamos que los datos facilitados por Usted, se tratarán en nuestros ficheros de forma automatizada/manual con la finalidad de cumplir con el objeto social de estudio de la población que acude a este servicio y de justificación de subvenciones, de nuestra organización, destinataria y responsable de la información.

Salvo comunicación en contra por su parte en el plazo de 30 días, entendemos que usted consiente el tratamiento de sus datos y en la cesión de éstos a **Trantsibellamerika sareak**, y a los organismos públicos correspondientes, con la finalidad exclusiva de cumplir con la obligación de justificación de subvenciones, al ente financiador y de estudio de la población que acude a este servicio. La negativa a facilitarlos supondrá la imposibilidad de ser atendido por nuestros servicios.

Usted podrá en cualquier momento ejercer el derecho de acceso, rectificación, cancelación y oposición en los términos establecidos en la Ley Orgánica 15/1999.



2017ko ekainean, Carlos Zapatero Berdonces Hiritar Segurtasuneko zinegotziak iragarri zuenez, Udaltzaingoak bi salaketa jaso zuen urte hartan hirian cruising egiten den esparru batean gertatutako erasoak zirela-eta. Datu horiek bat egiten dute sareak zituenarekin. Kasuistika partikular horretatik, erantzun-mugimendutik erabaki genuen gure lana udalerrri guztira zabaltzea, eta artatzea bai telefonoz jakinarazten zizkiguten erasoak, bai eta komunikabideen eta sare sozialen bidez antzematen genituen erasoak ere.

Hala, erasoak antzemateko bide bi bereiztu ditzakegu:

- Zuzenean jasotzen ditugunak, herritarren esku jarritako telefono-zenbakiaren bidez edo gure kontaktuek jasotako informazioen bidez.
- Bilaketa aktiboaren bidez jasotzen ditugunak, komunikabideak eta sare sozialak baliatuta.

## Zein eragilerekin izan garen harremanetan

2017ean, zenbait bilera egin ditugu Gasteizko LGTBlokin harremanen edo betebeharren bat duten elkarrekin, pertsonekin, erakundeekin eta kolektiboekin. Hona hemen egindako bilerak, laburbilduta:

### *Gasteizko Udala*

Etengabe izan gara harremanetan Gasteizko Udalarekin, bereziki Berdintasun Zerbitzuarekin.

2017an, Berdintasun Zerbitzuarekin eta Herritarren Segurtasunaren Sailarekin egin genuen bilera bat. Bilera hartan, Gasteizko cruising espazio batean izandako azken erasoen berri eman genuen, eta horri buruz jasotako informazioa azaldu. Alde batetik, zera ohartarazi genion Berdintasun Zerbitzuari: LGBTI errealitateen diagnostikoa egiteko prozesuan murgilduta egonda ere, egoera jakin batzuen aurrean erantzukizunez eta kezkaz jardun beharra dago, hau da, batak ez duela bestea kentzen. Ohartarazi genion, horretaz gain, gero eta biolentzia gehiago dagoela, ez dugula ikusten gutxitzen ari denik. Herritarren Segurtasunaren Sailari eskatu genion, bestalde, azaltzeko zergatik Udaltzaingoak ez duen esku hartzen gai honetan, eta zergatik biktimak ez zuen tratu egokirik jaso aipatutako kasuetariko batean.

Berdintasun Zerbitzuak erantzun zigunez LGBTI kolektiboaren errealitatea

hartuko dela du aintzat, bai erasoen aurkako plana egiterakoan, bai eta haren dinamikaren bertan ere. Halaxe hasi dira lotura-zubiak ezartzen, bada, gure eta aipatu zerbitzuaren artean.

**Aurretiko jarrera eskasagoa antzeman dugu, berriz, Herritarren Segurtasunaren Sailaren aldetik. Eta hori oso kezagarria da.** Izan ere, sail horren ardura da herritar guztion segurtasuna zaintzea, LGTBI garenona ere bai. Ekimen-falta hori prozesu osoan zehar agertzen da, jasotako lekukotasunen arabera.

### *Arabako Probintzia Fiskaltza*

Maria Vidal Berdintasunaren Zigor arloko Tutoretzako eta Diskriminazioaren aurkako fiskal delegatuari azaldu genion kezkatuta gaudela handitu delako delitu homofoboaren kopurua, zehazkiago hirian cruising egiteko erabiltzen den espazio batean. Jakinarazi genion, gainera, kezkatuta gaudela jakin dugulako Fiskaltzak ez dituela kasuak aintzat hartu, Udaltzaingoaren atestatuaren arabera, eta Gasteizko Udaltzaingoko arduradunak egiaztatu digun lez. Fiskal andreak ukatu egin zigun hori. Berak dionez, beti hartzen ditu aintzat kasuak tramitatzen diren moduan. Horrez gain, gurekin harremanetan egoteko prest agertu zen, etorkizunean sexu orientazioan edo género-identitatean oinarrituta agertzen diren gorroto-delituen kasuak tratatzeko. **Fiskala aurrean ez egonik epaitzen diren delituetarako jarraibide batzuk eman ziren. Esate baterako, gorroto-delitua larrigarria aplikatzeko eskatzea.**

### *Arartekoa*

Arartekoaren aurrean kontsulta bat erregistratu genuen, zeinaren bidez eskatu baikenuen, antzemandako egoera dela eta, segurtasun-indarrek eta kidegoek (Ertzaintza eta Udaltzaingoa) konponbideak planteatu zituzten gure hirian, gizon homosexualen aurka behin eta berriz izaten ari diren erasoen aurka. Ez gintuen asebetu Arartekoaren erantzunak. Izan ere, dagozkion erakundearen aurrean aurretiko erreklamazioak egitera bidali gintuen (Segurtasun Saila eta Herritarren Segurtasunaren Saila).

### *Gasteizko sindikoa*

2017ko azaroan bilera bat izan genuen Martin Gartziandia eta Leire Zugazuarekin, hau da, garai hartako eta gaur egungo sindikoekin, hurrenez hurren. Hantxe azaldu

genien antzeman dugun arazoa, alegia: gero eta eraso gehiago daudela Gasteizen. Behin eta berriz planteatu genien udal-zerbitzuak koordinatzeko premia, biktimei erantzun egokia emateko, bai eta udaleko langileei prestakuntza gehiago emateko beharra ere, erasoak nozitzen dituzten pertsonak zelan artatu ikas dezaten.

### *Arabako Abokatuen Elkargoa*

2018ko urtarrilean, bilera bat egin genuen Arabako Abokatuen Elkargoko kideekin. Bilera hartan, Gasteizko egoeraren berri emateaz gain, premia bat planteatu genuen: etengabeko kontaktua izatea sexu-orientazioan eta género-identitatean oinarritutako gorroto-delituak maneiatzen adituak diren abokatuekin.

### *Berdindu (Aldarte) eta Hiesaren aurkako Arabako Batzordea*

Hiesaren aurkako Arabako Batzordeak eskatuta, hiru aldeko bilera izan genuen, non Berdindu zerbitzuak ere parte hartu zuen (Arabian, Aldarte elkarteak kudeatzen du zerbitzu hori). Bilera horretan, LGTBI mugimenduek Gasteizen duten egoera aztertu genuen, eta lankidetzan aritzeko premia nabarmendu genuen, batez ere biktimak artatzeko eta edozein eraso egonez gero erantzuna emateko. Bilera horren ondorioz, Aldarteko arduraduna Gasteizko Sare Transbollarikartan sartu zen, norbanako gisa. Horrez gain, hiru erakundeen artean lankidetzan aritzeko etapa berri bati ekin genion, eraso LGTBIfobikoei aurre egiteko.

### *Gehitu*

Kontaktu-maparen barruan, Gehitu elkartearekin egin genuen bilera bat (Donostian oso ezarrita dago, baina Gasteizen osatu berria da). Bilera hartan, LGTBI mugimenduek hirian duten egoera aztertu genuen, eta Gehituko arduraduna gonbidatu genuen norbanako gisa parte har dezan Sarean. Uko egin zion gonbidapenari.

# 5. DATUEN AZTERKETA

## 1. KASUA

**Data:** 2017-04-07

**Zelan izan genuen haren berri:** Komunikabideen bidez

**Zeini eragin dion:** Herritar guztiei

**Tipologia:** Isekak

**Deskribapena:** “Hazte Oir” elkarteak Gasteizko kaleetan agertzeko asmoa zuen, transfobia-autobusean, hau aldarrikatzeko: “Que no te engañen, los niños tienen pene y las niñas tienen vulva”. Hurrengo egunetan zenbait aldiz etortzeko imintziora egin ostean, autobusa ez zen Gasteizen agertu.

**Azterketa:** Zisheteronormatibitatearen apologiak gorroto-egoerak sortzen ditu trans-kolektiboarekiko eta, zabalkundez, dibertsitate sexualarekiko eta arautik kanpoko harremanen eredu bat planteatzen duten pertsona guztiekiko. “Hazte Oir” elkarteak erabilgarritasun publikotzat jo du Barne Ministerioak. Bada, haren moduko elkarteak egoteak lortzen duen gauza bakarra da trans-en sufrimendua luzatzea; haien gorputzez eta géneroaz erabakitzearen eskubidea ukatzeaz gain, errealitateari egokitzen ez den ikuspegi binarista bultzatzen baitu.

## 2. KASUA

**Data:** 2017ko maiatza

**Zelan izan genuen haren berri:** Komunikabideen bidez

**Zeini eragin dion:** Hizkuntza Eskola Ofizialeko ikasleei (Hezkuntza)

**Tipologia:** Isekak

**Deskribapena:** Komunikabideen bidez zabaltzen da Gasteizko Hizkuntza Eskolako irakasle batek LGTBIfobiaren aurkako nazioarteko Egunaren harian egindako kanpaina bat kritikatzeko duela, antza, LGTBI kolektiboaren aurkako biolentzia justifikatzeraino kritikatu ere.

Ikasleek salaketa jarri ostean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari jakinarazten dio egoe berri eskolak.

**Azterketa:** Eredugarria jotzen dugu ikasleek Hizkuntza Eskolako kurtso horretako irakaslearekin erakutsitako jarrera. Gizarte osoaren lana da LGBTI kolektiboaren aurkako gorroto-diskurtsoak geldiaraztea. Inongo eremutan ez da halakorik onartu behar, are gutxiago hezkuntza-eremu batean. Ikasleen jarrera babestu behar dute Eskolako Zuzendaritzak eta Hezkuntza Sailak, kasu honetan gertatu zen bezala. Bakoitzak bere lekutik ekarpenak egin behar ditu, dibertsitatea sustatzeko. eta diskriminazioa geldiarazteko.

### 3. KASUA

**Data:** 2017-06-04

**Zelan izan genuen haren berri:** Sare Transbollomarikaren telefonoaren bidez

**Zeini eragin dion:** Gay bati (eremu publikoa).

**Tipologia:** Zuzeneko diskriminazioa.

**Deskribapena:** Mutilak kontatutakoaren arabera, banku batean eserita zegoela, zigarreta bat erretzen, 10 lagun inguru gerturatu zitzaizkion, eta hasi zitzaizkion nondik zetorren galdetzen eta oihuka. Alde egin zuen. Hiru lagun inguruk segika jarraitu zioten. Batengana jo zuen, bakean uzteko eskatuz. Borrokan ibili ziren, eta ihes egitea lortu zuen. Geroxeago, lurrera bota zuten. Betaurrekoak galdu zituen, eta, gaua zenez, ez zuen ezer ikusten. 112 zenbakira deitu zuen. Teleoperadoreari gertatzen ari zitzaiona kontatzen ari zitzaiola erasotzaileak konturatu ziren horretan zebilela, eta orduan hasi omen ziren irain homofoboak botatzen.

Berriz jo zuten berarengana, 2 ostikada eman zioten eta saiatu ziren mugikorra kentzen. Ertzaintza agertu zen, eta erasotzaileetariko bat identifikarazi zuen. Bitartean, gertuko erakunde bateko garitan babestu zuen bere burua, ertzain batek proposatu lez. Horrek berak lagundu zion galdutako betaurrekoak bilatzen. Ertzainek azaldu zioten larrialdi-zerbitzura jo behar zuela, lesio-partea egin ziezaioten, eta gero komisaldegira, salaketa jartzeko.

Komisaldegiko itxaron-gelan, mutil baten ondoan eseri zen. Deklarazioa hartu zion ertzainak ea ezagutzen zuen galdetu zion. Ezetz erantzun zuen. Antza, ustezko erasotzaileetariko bat zen. Mutilaren ustez, oso tratu egokia eman zioten Ertzaintzaren komisaldegian eta ulerkor agertu ziren berarekin.

Erasoa jasan zuena porru eginda dago, ez du lorik egiten gauez, mina dauka gorputzean jasotako ostikadak direla-eta, ezin da mugitu, ezta jantzi ere.

**Azterketa:** Eraso homofobia.

Ahulgarria suertatzen da espazio publikoa sexu- eta género-dibertsitatea askatasunez bizi dugunontzat. Ikuspegi heterosexual bat inposatzearen aldeko herritarren lehentasunezko ikuspuntua da kalea. Kaleak garrantzi handia dauka norberaren askatasunak eta askatasun kolektiboak bizitze aldera, eta, hain zuzen ere, kalean género-dibertsitatea ghettoetatik irteten da gure bizitzetan uneoro errebindikatzeko eta geure buruak gure hirietako bazter guztietan ikustarazteko. Hain zuzen ere, eskubideak baliatzen ditugunean, LGTBI taldearekiko herraz eta gorrotoz agertzen dira batzuk.

## 4. KASUA

**Data:** 2017-06-21

**Zelan izan genuen haren berri:** Sare Transbollomarikaren telefonoaren bidez.

**Zeini eragin zion:** Gay bati, espazio publikoan izandako eraso baten lekukoa.

**Tipologia:** Zuzeneko diskriminazioa.

**Deskribapena:** Gasteizen cruising-ean ibiltzeko dagoen espazio batera joan zen. Bertan esan zioten hantxe 15 egun lehenago jo zutela pertsona gay bat. Une horretan hasi omen zen espazio hori erabiltzen ari zen pertsona baten aurkako oihuak entzuten: “maricón de mierda”. Pertsona horrek Ertzaintzari deitu zion, eta ertzainek erasotzaileak identifikarazi zituzten.

**Azterketa:** Homofobia-kasu bat da. Eraso fisikoak eta “marikoia” berba mespretxuz esanez gutxiestu eta mespretxatu egiten dira berba horren hartzaileak. Dena den, kasu honetan argiro ikusten da ahozko erasotik eraso fisikora pasatzen dela. Ukituak kontatzen digu eraso fisiko baten berri izaten ari zen unean bertan sortu zela eraso fisikoa ekar zezakeen ahozko giroa, beste kasu batzuetan ezagutu dugun bezala.

LGTBI kolektiboak espazio publikoa erabiltzeko eskubidea dauka, eta ezin da ukatu eskubide hori, ezta mugatu ere indarkeria eta irainak erabiliz kolektibo horretako pertsonen aurka. Gorroto-jarrera da, eta LGTBI kolektiboa osatzen dugunok estigmatizatzea eta espazio publikoaren erabilpenean ez ahalduntzea bilatzen du.

## 5. KASUA

**Data:** 2017-06-24

**Zelan izan genuen haren berri:** Sare Transbollomarikaren telefonoaren bidez.

**Zeini eragin zion:** Gay bai, espazio publikoan izandako eraso baten lekukoa.

**Tipologia:** Zuzeneko diskriminazioa.

**Deskribapena:** Cruising esparru batera joan zen. Kontatzen duenez, bertan herritar-taldeak zeuden. Batzuk irainka ari ziren, eta beste batzuk ez. Gazte bat gerturatu zitzaion, eta galdetu zion ea marikoia den. Baietz erantzun zionez, eztabaidatzen hasi ziren, gero eta tonu zakarragoan. Udaltzaingoari deitu zion; horren ostean, tentsioa gutxitu egin zen.

**Azterketa:** Ahozko eraso homofoboa. Mespretxatzeko asmoz “maricón” berba erabiltzearen aurrean, eraso jaso duen pertsonak baietz erantzun zuen, erasotzailearen asmoak zapuztuz. Jarrera hori ahaldunduta dago, eta sendoa da homofobiari aurre egiteko. Seguru aski horixe izan zen eraso ez larriagotzeko arrazoia.

## 6. KASUA

**Data:** 2017-06-27

**Zelan izan genuen haren berri:** Sare Transbollomarikaren telefonoaren bidez [whatsapp]

**Zeini eragin zion:** Gay bai, espazio publikoan izandako eraso baten lekukoa.

**Tipologia:** Zuzeneko diskriminazioa.

**Deskribapena:** Cruising espazio batean eraso homofobo bat gertatu berri omen zen, eta Ertzaintzari eman zitzaion horren berri. Oraindik etengabe agertzen dira herritar homofoboak (gizonezkoak).

**Azterketa:** Cruising-ean ibiltzeko espazioak erabiltzen dituzten pertsonak, aurreko asteotan izandako erasoak direla-eta erne, jarraitzen dute gertatzen diren erasoen berri ematen Sare Transbollomarikari. LGTBIQ kolektiboren barneko antolakuntza eta komunikazioa funtsezkoa da izaten ari diren gertakizunei aurre egiteko, azterketa egokia egin ahal izateko eta erasoak saihesteko konponbideak bilatzen saiatzeko (edozein dela ere eraso-mota). Antolatzea ezinbestekoa da kolektiboa ahalduntzeko eta bere eskubide zibilak defendatzeko.

## 7. KASUA

**Data:** 2017-06-27

**Zelan izan genuen haren berri:** Sare Transbollomarikaren telefonoaren bidez.

**Zeini eragin zion:** Gay bati, ahozko eraso jaso zuena espazio publikoan.

**Tipologia:** Jazarpen diskriminatzailea.

**Deskribapena:** Koadrila bat gerturatzeko da cruising espazio batera, eta zera oihukatzen du: "Iros de aquí, maricones de mierda". Borrokan ibili ostean, poliziari deitzen dio. Cruising espazioaren erabiltzaileek ospa egiten dute handik. Polizia agertzen denerako erasotzaileak ez daude jada bertan, eta ezin izaten zaie identifikatu.

**Azterketa:** Talde-erasoa, ahozkoa, kasu honetan cruising espazioaren erabiltzaile guztien kontra egindakoa. Erasoa ez zen larriagoa izan, eraso jaso zuenak ihes egin zuelako. Askatasun- eta olgeta-espazio bat galtzen da.

## 8. KASUA

**Data:** 2017-06-30

**Zelan izan genuen haren berri:** Sare Transbollomarikaren telefonoaren bidez.

**Zeini eragin zion:** Gay bati (espazio publikoa).

**Tipologia:** Jazarpen diskriminatzailea.

**Deskribapena:** Cruising espazio batera joatenda, eta bere burua heterosexuatzat jotzen duen mutil batekin hizketan hasten da. Patxadaz ari dira hizketan. Azken asteetan izandako erasoak kontatzeaz gain, ez diola ezer egingo azaltzen dio zenbait aldiz. Baina giroa arrarotzen hasten denez, elkarrizketa amaitzea erabakitzen du. Handik alde egiten du, eta etxe aldera jotzen du. Geroxeago konturatzen da berarekin berba egin duen mutila segika izan duela.

**Azterketa:** Lekukotasun hau ez da sailkatzeko erraza, ez baitugu ezagutzen zer asmo zeukan ustezko erasotzaileak. Testuingurua kontuan hartuta, baliteke eraso homofobo bat izatea, zenbait aldiz elkarrizketa bat izan baitamota horretako erasoen abiapuntua.

## 9. KASUA

**Data:** 2017-07-10

**Zelan izan genuen haren berri:** Sare Transbollomarikaren telefonoaren bidez.

**Zeini eragin dion:** Gay bati, etxean.

**Tipologia:** Jazarpen intragéneroa.

**Deskribapena:** Bikotekide ohi bien arteko eztabaida, horietako bat etxera joaten denean bere gauzak hartzera. Bere bikotekide-ohiaren anaiaren ustezko eraso, ahozkoa eta fisikoa, azaltzen du elkarrizketatuak.



**Azterketa:** Gayen arteko bikoteetan eredu heteronormatiboa errepikatzearen ondorioz, zapalkuntza-rol berberak errepikatzen dituzten harreman-ereduak agertzen dira.

## 10. KASUA

**Data:** 2017-08-30

**Zelan izan genuen haren berri:** Sare sozialen eta komunikabideen bidez.

**Zeini eragin dion:** Gay bati, kristaua bera, erlijio- eta lan-eremuan.

**Tipologia:** Zuzeneko diskriminazioa.

**Deskribapena:** Komunikabideen bidez dakigunez Gasteizko apezpikuak debekatzen dio eliztar bati inolako jarduerarik izatea bere parroketan, eliztar hori gaya delako debekatu ere.

**Azterketa:** Erlijioek oro har (kristautasunak, kasu honetan) diskriminatzen dituzte beren jarraitzaileak haien sexu-identitatearen eta géneroaren arabera. Ez da lehen aldia zeinean jasoarazten baita elkarte kristau baten erasoak gure gorputzei eta desirei buruz erabakitzeko eskubidearen aurka. Erakunde horren arauak diskriminatzaileak dira, argiro. Hori egia den bezala, egia da ere erakundeen pasibotasuna eta laguntza ekonomikoa aktiboa ere dagoela, eta hori ezinbesteko faktorea dela LGTBI pertsonen giza eskubideak urratzen dituzten elkarreentzat.

## 11. KASUA

**Data:** 2018ko urtarrila

**Zelan izan genuen haren berri:** Sare Transbollomarikaren bidez

**Zeini eragin dion:** Gizon gazte trans bati, lan-eremuan.

**Tipologia:** Zuzeneko diskriminazioa

**Deskribapena:** Transfobia izan daitekeen kasu baten berri jasotzen dugu. Laneko eremuan izan da, zehazki, Gasteizko merkataritza-zentro ezagun bateko ostalaritza-establezimendu batean.

Erasoa jaso duen pertsonak jakinarazten duenez egoera hobetu egin da laneko nagusi batekin berba egin duenean. Ez du informazio gehiago eman gura.

**Azterketa:** Transexualek eten gabeko erasoei eta diskriminazioei egin behar izaten diete aurre laneko eremuan, hala nola: enpresaburu askok kontratatu

nahi ez izatea, oztopoak jartzea trantsizio-aldietan daudenean, eta lankideen jarrera. Egoera horiek ez dira salatzen. Sintomatikoa da. Ondorioak atera daitezke.

## 12. KASUA

**Data:** 2018ko urtarrila

**Zelan izan genuen haren berri:** Sare Transbollomarikaren telefonoaren bidez

**Zeini eragin dion:** Gay bati, adingabekoa bera.

**Tipologia:** Jazarpen intragéneroa.

**Deskribapena:** Adingabe hori harremanetan ibili zen zenbait hilabetez beste mutil batekin. Harremana apurtu ostean, azken mutil horrek adingabearen argazkia, bai eta haren helbidea ere, jarri zuen sexu harremanak bilatzeko aplikazioetan. Adingabea bere gurasoekin bizi da. Egun osoa ematen du leihotik begiratzen ea nor datorren ikusteko, eta oso urduri jartzen da norbaitek txirrina joz gero.

**Azterketa:** LGBTIn arteko harremanetan ere agertzen dira biolentzia matxistazko egoerak, género berekoen arteko harreman horiek heteroarauari jarraikiz bizitzearen ondorioz. Errepikatzen dira, bada, bikotekidea jabetzan izateko sentimendua edo eredu heterosexual nagusiaren presio rolak. Pertsona ahulenak, adingabekoa bera eta armairutik irten gabea, bikotea apurtzeak gorroto eta mendeku sentimendua sortarazten du bestearengan, eta, orduan, mutikoak deskribatutako moduko egoerak sortzen dira. Hau da, harreman ereduak zalantzan jarri barik eta harreman eredu sanoak sortu barik, ez dago sexu askapenik.

Kasu honetan, azpimarratu behar dugu erasotzaileak eraso nozitu duenaren familiaren aurrean presionatzeko erabili duela “armairutik ateraraztea”, LGBTI kolektiboko kidea izateagatik sentitzen den lotsa. Gertakizun hori are larriagoa da tartean adingabe bat dagoelako, eta horregatik ezin delako dagokion salaketa jartzera joan legezko tutorerik gabe. Familia+armairua+legedia: faktore horien batuketaren ondorioz erasotzailea zigorrik gabe geratzen da, eta behin eta berriz errepikatzen ditu gertakariak. Horrez gain, LGBTI elkarteak zailtasunak dituzte gaiari heltzeko.

## 13. KASUA

**Data:** 2018-01-22

**Zelan izan genuen haren berri:** Aldarteren bidez.

**Zeini eragin dion:** Gay bati, musulmana bera, erlijio-eremuan eta espazio publikoan.

**Tipologia:** Askotariko diskriminazioa.

**Deskribapena:** Gay dela dio, betidanik onartu duela, ez duela ezkututzen. Ikusgai den gaya izateagatik, erasoak, jazarpenak eta umilazioak eragiten dizkiote, batez ere komunitate musulmaneko kideek. Dirua ematera behartzen saiatzen dira, edo edariak eta substantziak hartzera gonbidatzera, marika izateagatik. Sexua eskaintzen diote diruaren truke, edo esaten diote besteekin harremanak izatearen truke kobratzeko eta dirua beraiei emateko. Utzi dio meskitara joateari, ez duelako erasotzaileekin topo egin gura. Dionez, imamarekin egin du berba bere sexualitateari buruz, eta hark ez dio ezer leporatu.

Azaltzen duenez, zenbait aldiz esan dio erreferentziako gizarte-langileari, badira 7 edo 10 urte, gay dela eta horren ondorioz jazarpena, erasoak eta umilazioak nozitu ohi dituela.

Urtarrilaren 22an, pertsona batek iraun eta mehatxatu zuen. Erasotzailea ezagutzen du lehendik. Lurrera erortzen da, erasotzaileak bizkarrean ematen dion ostikoaren ondorioz.

Lurrean dagoela, bosteko bat ematen dio aurpegian, bekainaren aldean. Ospitalera doa. Han artatzen dute, eta lesio-parte bat egiten diote. Salaketa jartzen du Ertzaintzan, baina erasotzaileak betaurrekoak kendu dizkiola esatea ahazten zaio.

Gurekin dagoen denbora-tartean esaten du beldur handia duela ez ote duten erasorik egingo, ia ez dela alde zaharrean ibiltzen jendeak ezagutzen duelako eta etengabe iraintzen dutelako edo xantaia egiten saiatzen direlako. Komentatzen duenez, Berdindu bezalako lekuetara joan behar izaten badu, aurpegia estaltzen du sartzera edo ateratakoan, inork ez dezan ezagutu.

Esaten duenez, bere egunerokotasunean jazarrita izaten da eta ikaratuta sentitzen da.

Gainera kontatzen du pisu bat alokatu nahi duela, baina ez duela lortzen, komunitate musulmaneko jendeak ez duelako gayekin bizi gura, eta bertoko

jendeak ez duelako migratzaileekin bizi gura.

Zera planteatzen du: zerbitzu sozialen barruan pisuak edo logelak eskaini beharko lituzketela bera bezala dauden LGTBientzat.

**Azterketa:** Berriz ere antzematen dugu zelan elkarte erlijiosoak eraso-espazio bihurtzen diren LGTBI kolektiboarentzat. Horrela, pertsona horretako batzuk ez doaz erlijio-eginkizunak egitera. Halaxe jasotzen da berriki Gasteizko Udalak egindako diagnostikoan ere. Kasu honetan, erakundeek apenas ez diote ematen babesik erlijio musulmanari (nagusi den erlijio kristauari ez bezala). Dena den, gehiengo batek leporatzen dizkiote kolektibo honi LGTBIfobia eta matxismoa, eta diskurtso homonazionalistek komunitate jakin batzuekiko gorrotoa sortzen dute. Gertaerek erakusten digute, berriz, LGTBIfobia eta misoginia orokorrak direla erlijio-eremuan eta erlijio gehienetan eragiten dutela.

Berriz ere, ikusgaitasunak aurpegi bi ditu: bat espazioak eta inguruneak liberatzeari dagokio, eta bestea, horren ondorioz, erasoak sortzen ditu LGTBI kolektiboaren aurka. Sexu- eta género-askatasuna izateko eskubidea baliatuz gero, heteroarauaren alde dauden sektoreek aukeratu ahal izaten dute zeini eraso egin.

## 14. KASUA

**Data:** 2018-02-11

**Zelan izan genuen haren berri:** Sare Transbollomarikaren telefonoaren bidez [whatsapp].

**Zeini eragin dion:** Gay bati, aisialdian.

**Tipologia:** Zuzeneko diskriminazioa.

**Deskribapena:** Whatsapp-eko zabalkunde-mezu baten bidez zabaltzen da ostalaritzako establezimendu batean mespretxatzen ari direla pertsona bat dantzatzeko moduagatik, "luma" du-eta. Adiskide bat pertsona horren defentsan agertzen da, eta atezainak jarrera bortitza erakusten du.

**Azterketa:** "Luma" ikustarazteko erabiltzen da, LGTBI kolektiboa gizartearen aurrean identifikatzeko. Gizonek keinu femeninoak adierazteak, eta emakumeek maskulinoak, arbuioa pizten du zenbait eremutan: lumafobia, alegia. Heteroaraua betetzen dutenen artean soilik ez da gertatzen, ordea; LGTBI kolektiboaren barruan ere mespretxu handia dago adierazteko modu horren aurrean, hetero-arauari jarraitzen dion eremuan asimilatuak izateko

interesak egoten direlako. Horrek guztiak zapalkuntza-ereduak sustatzen ditu.

## 15. KASUA

**Data:** 2018ko martxoa

**Zelan izan genuen haren berri:** Sare Transbollomarikaren telefonoaren bidez.

**Zeini eragin dion:** Gay bati (ziberjazarpena jaso zuen).

**Tipologia:** Zuzeneko diskriminazioa.

**Deskribapena:** Aplikazioen bidezko jazarpena: erasotzaileak heriotza eta jipoi mehatxuak bidaltzen dizkio, eta gezurrezko zurrumurruek zabaltzen ditu haren egoera serologikoari buruz. Bide publikoan ere mehatxatzen du, bertan topo egiten dutenean. Salaketa jartzen du Ertzaintzan. Han datu gehiago eskatzen diote erasotzailea identifikatu ahal izateko, baina pantaila-irudiak ez dira nahiko frogak erasotzailea harrapatzeko.

**Azterketa:** Luma, egoera serologikoa, eta armairua erabiltzea...LGTBI kolektiboaren barruko arbuio-elementuak dira, hetero-arauari jarraikiz ezarritako eredu bere egitearen ondorioz, zeinean gure sexualitateari buruzko gogoetak indibidualismotik egin diren eta ez ikuspegi kolektibo eta eraldatzaile batetik. GIB/HIESa duten pertsonen estigmazioa ez da desagertu, inola ere. Erasotzeko forma berriak sortzen ditu: kasu honetan, biolentzia gehien sufritu duen kolektibo baten barruan. Jaurtitzeko arma gisa erabiltzen da, LGTBI kolektiboaren barruan pertsonen diskriminazioa bultzatzeko.

# 6. ISLA KOMUNIKABIDEETAN

## ETA ERANTZUN EKINTZAK

### PRENTSA IDATZIA

15 de marzo de 2017

SOCIEDAD 23



Miembros de la asociación ultracatólica HazteOir posan frente al autobús naranja en contra de la transexualidad de los menores. Foto: Efe

## Las capitales vascas plantan cara al autobús contra la transexualidad

La Policía Municipal de Madrid inmoviliza el vehículo y vigilará para que no haga más paradas

◀ Idóia Alonso

**VITORIA** – El autobús contra la transexualidad infantil organizado por la asociación ultracatólica HazteOir se topará en su escala en tierras vascas con el rechazo de las ciudades en las que pretende recalcar dentro de la gira que ha comenzado en Madrid. Eso si es que la Justicia permite que siga circulando el polémico autobús naranja que desde el lunes se paseaba por las calles madrileñas –sobre todo frente a los colegios– con mensajes como *Los niños tienen pene. Las niñas tienen vulva. Que no te engañen.* Y es que en menos de 24 horas la caravana transfóbica, realizada en respuesta a la reciente campaña de la asociación Chrysalis para visibilizar la transexualidad de menores en marquesinas de Euskal Herria y redes sociales, ha provocado una cascada de reacciones contrarias que podrían acabar forzando la prohibición de la misma por su posible incitación al odio.

Así lo han entendido todos los partidos a ambos lados de la muga. La Comunidad de Madrid, presidida por la popular Cristina Cifuentes, ha puesto el caso en conocimiento de la Abogacía General y la Generalitat catalana lo ha llevado ante la Fiscalía ya que está previsto que autobús circule el viernes por Barcelona y el sábado por L'Hospitalet de Llobregat y Sant Cugat del Valles. A media tarde de ayer, la Policía Municipal de Madrid inmovilizó autobús para que no siga difundiendo por sus calles los mensajes discriminatorios de una campaña "violenta y ofensiva", mientras que el Consistorio de Barcelona anunció que paralizará y sancionará con multas de hasta 3.000 euros el vehículo por

infringir la Ley de Publicidad Dinámica. "El autobús no tiene permiso para circular por la ciudad, no es bienvenido", afirmó ayer la concejala de Feminismos y LGTBI, Laura Pérez, quien advirtió de que el Ayuntamiento "no se quedará de brazos cruzados" y aprovechará todo el margen que tiene para sancionar su actividad.

**REACCIÓN EN EUSKAL HERRIA** El discurso del grupo ultra tampoco será bienvenido en Euskal Herria. Está previsto que el autobús recorra Iruleña el 5 y 6 de marzo para estar dos días en Donostia. El 9 de marzo llegará a Bilbao y después parará en Las Arenas y Algorta. La última escala será los días 11 y 12 en Gasteiz. La Asociación de Familias de Menores Transsexuales Chrysalis, que fue objeto de sabotajes por instalar carteles para tratar de normalizar la situación de aquellos menores cuya identidad sexual no coincide con el sexo que les asignaron al nacer, invitó a la gente a salu-

"Este tipo de actos lo único que fomentan es el odio y la discriminación por la identidad sexual"

**ITZIAR URTASUN**  
Concejala de Igualdad de Bilbao

"El autobús no encaja en una ciudad diversa, moderna y tolerante como Gasteiz"

**GORKA URTARAN**  
Alcalde de Gasteiz

"Pedimos que no se envíe este autobús a Pamplona porque es contrario a la diversidad"

**AYUNTAMIENTO DE IRULEÑA**  
Junta de Portavoces

dar al autobús con una peinetta. "Hoy la tontería se pasea por las carreteras montada en un autobús naranja, si te cruzas con ella no te olvides de regalarle una peinetta", afirmó.

Los ayuntamientos de las cuatro capitales de Hegoalde fueron ayer una sola voz para "rechazar" la llegada del autobús y no descartaron la adopción de medidas legales para impedir la difusión de mensajes contra la diversidad sexual. En declaraciones a DNA, la concejala de Igualdad del Ayuntamiento de Bilbao, Itziar Urtasun, señaló que "estamos completamente en contra de este tipo de actos ya que lo único que fomentan es el odio y la discriminación hacia las personas con una identidad sexual determinada". Hoy abordará la cuestión con todos los partidos para "realizar un posicionamiento conjunto" y analizará su legalidad con el área de Espacios Públicos del Ayuntamiento bilbaíno.

El alcalde de Gasteiz, Gorka Urtaran, afirmó que el autobús "no encaja con una ciudad diversa, moderna y tolerante con las distintas opciones sexuales" y avanzó que están estudiando si puede impedir su circulación. El alcalde de Donostia, Eneko Goia, subrayó que el Ayuntamiento donostiarra tiene "una posición muy contraria" a la que pregona HazteOir y, dentro de sus competencias, "analizará" la forma de "no colaborar" con su posible paso por la capital guipuzcoana. Por su parte, la Junta de Portavoces del Ayuntamiento Iruleña acordó "rechazar" la campaña y solicitó "que no se envíe dicho autobús a Pamplona porque contraviene el respeto a la diversidad, y en particular la diversidad sexual de género y el respeto al colectivo trans". ●

#### EL GOBIERNO VASCO Y EL PNV

#### RESPECTO A LOS DERECHOS SEXUALES

●●● **Reacciones.** El Gobierno Vasco también censuró la posible llegada del autobús de HazteOir a Euskadi, si es que se libra del cepo que le puso ayer Policía Municipal de Madrid para impedir que siga circulando. La consejera de Empleo y Políticas Sociales, Beatriz Artolazabal, solicitó respeto "tanto para los menores de edad como para las personas transsexuales", al tiempo que apostó por seguir trabajando "para acabar con toda discriminación por orientación sexual e identidad de género". Por su parte, la secretaria del EBB, Mireia Zarate, mostró su "indignación" por la campaña e indicó que el PNV velará por el respeto de derechos como los sexuales.

El Correo 2017/03/01



# Fuerte rechazo al autobús transgénero dentro y fuera de Euskal Herria

El autobús de la organización ultracatólica Hazte Oír, que difunde una campaña contraria a la diversidad sexual, está teniendo un amplio rechazo dentro y fuera de Euskal Herria, e incluso se han presentado denuncias por considerar que supone una «incitación al odio».

GARA | IRUÑA

Un autobús transgénero difunde lemas como "Los niños tienen pene", "Las niñas tienen vulva", "Si naces hombre, eres hombre", o "Si eres mujer, seguirás siéndolo". Se trata de una campaña de respuesta a la realizada recientemente con éxito por la asociación vasca Chrysalis, cuyo objetivo era concienciar a la sociedad en relación a la realidad que viven los menores transsexuales, así como avanzar en el reconocimiento y respeto de las distintas identidades sexuales.

La de Hazte Oír, por contra, ha generado rechazos en el ámbito institucional, político, sindical y asociativo. «Es una incitación al odio», advirtió ayer la Plataforma por los Derechos Trans, por lo que pidió la intervención del fiscal general del Estado. Está previsto que el autobús circule por Euskal Herria entre los días 5 y 12 de este mes. De momento, los alcaldes de Iruña, Donostia y Gasteiz ya han anunciado que estudiarán la adopción de posibles medidas para evitar que el autobús pase por estas capitales.

Ayer comenzó su andadura en Madrid, donde el equipo de Gobierno de Manuela Carmena trató de inmovilizarlo por considerar que se trata de una campaña «violenta y ofensiva», que



Autobús de Hazte Oír con el lema de su campaña. GARA

incumple las ordenanzas municipales y que podía suponer «incitación al odio».

Desde Madrid tiene previsto trasladarse a Catalunya, donde el Departamento de Trabajo, Asuntos Sociales y Familias de la Generalitat ya ha enviado al fiscal de delitos contra el odio la campaña ultracatólica.

El hecho se hizo viral y provocó una oleada de reacciones. En Euskal Herria, EH Bildu afirmó que Hazte Oír «vulnera flagrantemente los derechos de las personas transsexuales», por lo que solicitará a las instituciones el rechazo al «ataque» de «los se-

tores más ultraderechistas y ultracatólicos».

La consejera de Empleo y Políticas Sociales de Lakua, Beatriz Artolazabal, solicitó respeto «tanto para los menores de edad como para las personas transsexuales», y recordó que el Parlamento aprobó una ley de no discriminación por motivos de identidad de género.

**«Vergonzosa e intolerante»**

Geroa Bai calificó de «vergonzosa e intolerante» la campaña de Hazte Oír y la vio como «un ataque a la convivencia en una sociedad que es plural y diversa».

Equo y Ezker Anitza-IU también consideraron que se trata de «un ataque a los derechos LGTBI+», e instaron a las autoridades a no permitir la presencia del autobús en territorio vasco.

Esta misma petición fue hecha por el sindicato LAB, ya que que «el autobús del odio no tiene sitio en Euskal Herria».

Por su parte, el presidente de la organización ultracatólica, Ignacio Arsuaga, denunció ayer que han recibido «una avalancha de insultos y amenazas de muerte en Twitter» por parte de ciudadanos y de «algunas personalidades políticas».

Gara 2017/03/01

# Fobien aurrean

Transbollomarika sarea osatu dute Gasteizen. LGTBIQfobiaren inguruan gertatzen diren erasoei aurre egitea da horren egitekorik garrantzitsuenak. MIRIAN BITERI GASTEIZ

**O** sasunaren Mundu Erakundeak 1990eko maiatzaren 17an kendu zuen zergendatik homosexualitate, sexu-joera eta identitate, gizarteen berezko aniztasunaren baitako zafi gisa onartuak izaten hasi zitezen. Dagoeneko 27 urte pasa dira erabaki hori hartu zenetik, baina gaur egungo gizarteen badihar- du oraindik ere LGTBIQfobiak; errespetatu gabe jarraitzen dute dibertsitate afektibo eta sexuala zein genero-identitate anitzak.

Errealitate horren aurrean, Transbollomarika sarea osatu dute Gasteizen. Bertako kide Beñat Ortiz de Lazkanok gogoratu du Gasteizko Logia tabernako uesteko erasoaren ostenan hasi zirela biltzen: "Ezagunak dira bi emakumeak, musukatzen ari zirela esandako tabernatik bultzaka kanporatu zituztenak. Hori kontuan izanda, hainbat lagun elkartzu ginen, eta haser horretan agerian geratu zen eraso bat zegoen bakoitzean horri erantzun gizon elkarterik ez zegoela, kasu honetan mugimendu feministak zabaldu bazuen ere. Handik gutxira, inauterietan, eraso homofobia izan zen hiriburuko alde zaharrean. Guzti horrek sortutako amorrua, kezka eta urduritasunak izan dira gure sorreraren zergatia".

Bi helburu nagusi dituztela jakinarazi du Ortiz de Lazkanok. Batek, esan bezala, "heteroarautik haratago" bizi direnen aurkako eraso translesbionomofobiko guztiak aurre egitea; hain justu ere, "jendartearen indarkeriarik aurre egitea". Bestetik, auzi honen inguruan, instituzioek duten jarrera salatzea ere bilatzen du sareak. Nabarmendu duenez, Lesbiana, Gay eta Transsexualen Aldarte arreta zentroa zabalik baldin badago ere, "ez du behar harira, honako hau salatu du: "Badakigu Aldarte zerbitzura jotzen dute-



Beñat Ortiz de Lazkanok. | ALBERTO GARCIA

nek ez dutela arreta egokirik jaso. Hortaz, erakunde gabezia horri ere egingo diegu aurre".

**Erasoen aurrean, protokoloa**

Hasi baino ez dirik egin, baina "argi" dute nondik bideratu lana. Lehenik eta behin, eraso baten aurrean jarraitu beharreko protokoloa osatu dute; laster ikusiko du araudiak argia. Transbollomarika sareko kideak azaldu du ahalik eta jende gehienera heldzeko asmoarekin, sei hizkuntzatan nahi dutela argitaratzea: "Euskaratze prozesua dagoeneko eginda dago, baina beste hainbat hizkuntzara itzultzea falta da oraindik; kaleratzea atzeratu dezake horrek", aipatu du.

Horrez gain, hasi dira ekintzak antolatzen. Hazte Oir plataformaren autobusa dela eta, bi elkarretaratze egin zituzten bere garaian. Asteazkenean, berriz, Homofobia, Lesbofobia eta Transfobiaren nazioarteko eguna izan zen, eta horren bueltan, elkarretaratze deitu zuten. Andre Maria Zuriaren plazan, azenkaldian Txetxentian, Irunean, Irueñan eta hainbat tokitan izandako erasoak salatu zituzten eta zera ohartarazi zuten: "Guri dagokigun espazioa okupatzea gatoz, guri dagokiguna, garen bezalakoak izateko, eta garenaren protagonista eta



Andre Maria Zuriaren plazan egindako elkarretaratze bat.

bozeramaile izatera gatoz, inork gure izenon hitz egin ez dezan, gure bizitzak kontuan hartzeko eta esparru sozial guzietan LGTBIQ errealitate barneratu izateko". Gaineratu zuten sarean jardungo dutela, ikuspegi "feminista eta intersektional" batetik lan egitea.

**Asotarikotik ekintzak egunotan**

Ez da asteotan LGTBIQfobiaren inguruan antolatzen den ekintza bakarra. Laudion eta Gasteizen, esaterako, ostadarraren koloreak dituzten zebra-bideak margotu dituzte. Bestalde, Gasteizko Orbein kultura elkartean ere genero eta aniztasun sexualak puntarekin duen harremana aztertzen dabilta egunotan.

**"Erasoek sortutako kezka, amorrua eta urduritasunak izan dira gure sorreraren zergatia"**

BEÑAT ORTIZ DE LAZKANOK  
TRANSBOLLLOMARIKA SAREKO KIDEA

Horren barruan, ostegunon, hitzaldi eskainiko dute Jokin Azpiroz Carballo soziologoak eta Leire Lopez Ziluaga musika sustatzaileak, 19:00etan. Ostiralean, berriz, Olor taldearen kontzertua dago, 20:00etan; emanaldia amaiztan disko jartzaileak izango dira. Larunbatean, azkenik, Toys Sarasas eta Genderleix


taldeek joko dute ordu berean. Gainera, maiatzaren 25erako, genero eta identitate aniztasunarekin lotutako arreta ematen duten udal espezializatu buruzko mahai-ingurua prestatu du Gasteizko Udalak Goleuri jauregian, 18:00etan. Honako hauek hartuko dute parte bertan: Bartzelonako Udalaren LGTBIQ politikaren koordinatzaile den Meritxell Saez i Seilaresek, Madrilgo Udalaren TLGBQI osasun komunitario programaren aholkulari Nieves Salobral Martinek eta Irueñeko Udaleko Berdintasunerako teknikari Vanesa Egiluz Gonzalezek. Jarraituko da amaiztan, dantza, musika eta antzerkia uztartzen dituen *Limbo* lana eskainiko da.

Alea 2017ko maiatza









El obispo de Vitoria, Juan Carlos Elizalde, en la reunión de los obispos de Alava...

OBISPADO: "NO ES POR SER GAY SINO POR DIFAMAR"

Aclara que retiró las responsabilidades parroquiales a un feligres por un escrito injurioso contra el obispo

E.P./Vicente L. Garcia

De comunicación sobre retirada de responsabilidades parroquiales a Alfonso Ruiz de Arcaute...

El obispo de Vitoria, Juan Carlos Elizalde, en la reunión de los obispos de Alava...

En el Noreste trasladará la situación actual del país más poblado de África...

El Post-it

En Nigeria, los obispos de Nigeria han pedido al gobierno de ACN...

Noticias de Alava 17/09/06

EN BREVE

Cuatro agresiones homófobas este verano

ACTO DE REPULSA

Una concentración hoy en la plaza de la Virgen Blanca organizada por la Red Transbollarika de Vitoria...

Después de sufrir una paliza por parte de un grupo de cuatro o seis personas...

El Correo 17/09/13

Colectivos protestan por varias agresiones homófobas en Vitoria

CONCENTRACIÓN

La Red Transbollarika de Vitoria ha denunciado las agresiones homófobas que durante el verano se han producido...

Noticias de Alava 17/09/13

EL CASO

Vitoria pone cifras a la homofobia

Seis de cada diez estudiantes en un estudio municipal admiten haber sufrido agresiones verbales o físicas en la ciudad

LAURA AZCÓN

Vitoria. Las agresiones homofóbicas en la ciudad de Vitoria...



Grupos para una conferencia del Orgullo Gay en Vitoria...

LOS DATOS DEL ESTUDIO



Una formación más inclusiva en el ámbito de la salud

Las enseñanzas del Máster en Atención Primaria y Atención de Urgencia de la Universidad de Vitoria...

Muchos en el deporte

El deporte es una actividad que aporta bienestar y salud. En Vitoria, el deporte es una actividad que aporta bienestar y salud...

El Correo 17/12/15

LAS "VULNERABILIDADES" DE LA POBLACIÓN LGTBI SE CRONIFICAN

Más de 100 testimonios dan forma al primer diagnóstico local de E.H.54 que crece en el espacio público "nosseguro"

Carlos Múz, Oriolana y David Ramón Gómez

Vitoria. Las expresiones de discriminación hacia las personas lesbianas, gays, bisexuales y transgénero...



Agustina y Ferminola, en la presentación del estudio...

El Post-it

El diagnóstico de vulnerabilidades de la población LGTBI...

Señala, así como de garantizar la plena igualdad en los procesos de selección y en los espacios laborales...

Noticias de Alava 17/12/15

# PRENTSA DIGITALA

**Vitoria-Gasteiz también reivindica los derechos del colectivo LGTBI**

<https://www.gasteizhoy.com/derechos-lgtbi/>

**El colectivo LGTB denuncia agresiones homófobas en zonas de cruising**

<https://www.gasteizhoy.com/agresion-homofoba-cruising/>

**El colectivo LGTB denuncia agresiones en zonas de 'cruising' de Álava**

[http://cadenaser.com/emisora/2017/06/13/ser\\_vitoria/1497370620\\_403056.html](http://cadenaser.com/emisora/2017/06/13/ser_vitoria/1497370620_403056.html)

**El Gobierno vasco investiga a un profesor de Vitoria por criticar al colectivo LGTB**

[http://www.abc.es/espana/pais-vasco/abci-gobierno-vasco-investiga-profesor-vitoria-criticar-colectivo-lgtb-201705291458\\_noticia.html](http://www.abc.es/espana/pais-vasco/abci-gobierno-vasco-investiga-profesor-vitoria-criticar-colectivo-lgtb-201705291458_noticia.html)

**Urtaran intentará evitar que el autobús de Hazte Oír visite Vitoria-Gasteiz**

<https://www.gasteizhoy.com/el-autobus-de-hazte-oir-visitara-vitoria-gasteiz/>

**El arcoiris sale de nuevo en San Francisco**

[http://cadenaser.com/emisora/2017/05/08/ser\\_vitoria/1494228748\\_842574.html](http://cadenaser.com/emisora/2017/05/08/ser_vitoria/1494228748_842574.html)

**El Ayuntamiento estudia crear una concejalía y un observatorio LGTBI**

[http://cadenaser.com/emisora/2017/12/15/ser\\_vitoria/1513343140\\_698608.html](http://cadenaser.com/emisora/2017/12/15/ser_vitoria/1513343140_698608.html)

**Protesta por varias agresiones homófobas en Vitoria**

<http://www.elmundo.es/pais-vasco/2017/09/12/59b79ec922601dc8068c0cba.html>

**El obispo de Vitoria veta a un catequista homosexual que quería ser sacerdote**

[https://www.eldiario.es/sociedad/obispo-Vitoria-catequista-queria-sacerdote\\_0\\_683132324.html](https://www.eldiario.es/sociedad/obispo-Vitoria-catequista-queria-sacerdote_0_683132324.html)

**El Obispado de Vitoria expulsa a un catequista homosexual**

<http://www.eitb.eus/es/noticias/sociedad/detalle/5059865/vitoriagasteiz-el-obispado-expulsa-catequista-homosexual/>

# KARTELAK

**TRANS POWER**

**GELDITU DEZAGUN AUTOBUSA!!!**

**NO ES LIBERTAD DE EXPRESIÓN ES TRANSFOBIA**

ELKARRETARATZE ANTITRANSFOBIKOA  
**APIRILAK 7 / 19:00etan**  
 ANDRA MARI ZURIAREN PLAZAN  
 CONCENTRACIÓN ANTITRANSFOBIA  
**7 DE ABRIL / 19:00**  
**VIRGEN BLANCA**

#TransfobiarikEz

Ikusgaitasun lesbikoaren nazioarteko eguna  
 Día de la visibilidad lesbica

KONTZENTRAZIOA 20,00ETAN ANDRA MARI ZURIAN

piele, papel,

**bolera!**

APIRILAK 26 ABRIL

HEMEN ETA MUNDUAN  
**HEIEROARAUJA BORTIZKERIAREN HAZIA**  
 EL EJE DEL MAL ES HÉTÉROSEXUAL

MM 2 1/2

Asteazkena 17 Miercoles  
 20,00etan  
 Andra mari zurian  
 Elkarretaratzea

transbollomarika sarea

MIT LGBT BIQ+ Fabioen aurkako nazioarteko eguna

Eraso berria Gasteizen  
**HOMOFOBIA**  
 Nueva agresión en Gasteiz

**KONTZENTRAZIOA**

Asteazkena 13 Miercoles  
 20,00etan Virgen Blanca

ZUEN GORROTOAK EZ DU KABIDARIK GURE KALEETAN

**ERASO HOMOFOBOA GASTEIZEN**

**KONTZENTRAZIOA**

EKAINAK 14 JUNIO  
 MIÉRCOLES A LAS  
 19:30 ETAN  
 ASTEAZKENEAN  
 ANDRA MARI ZURIAREN PLAZAN

**ERASORIK EZ, ERANTZUNIK GABE!**

**GASTEIZKO CRUISING TOPALEKUETAN GERTATURIKO AZKEN ERASOEN AURREAN.**  
 Antes las últimas agresiones ocurridas en espacios de cruising en Gasteiz.

**ZURE LAGUNTZA BEHAR DUGU**

**Necesitamos tu colaboración**

Zerbait gertatu bazaizu edo ikusi baduzu / si te ha ocurrido o has visto algo



**633 30 96 53**

**Mezu pribatuak • Mensaje directo**

f Transbollomarika sarea @transbollomarik  
 ✉ transbollomarika.sarea@gmail.com

\* Anonimotasuna bermatuko da / Se garantizará el anonimato







## PRENTSA OHARRA NOTA DE PRENSA 2017/06/12

### Zuen gorrotoak ez du kabidarik gure kaletan

Gasteizko Sare Transbollarikak gogorki salatu nahi ditu azken asteoatan gizonekin sexua duten gizonentzako, gayentzako eta bisexualentzako topaleku eta aisirako diren gure hiriko hainbat gunetan izandako erasoak.

Jakin izan dugunez, hainbat pertsonen askatasun sexualaren jardunerako eskubidea urratuz dabilta zehaztu gabeko zenbait gizabanako, tartean jarraipenak eta jipoiak jazo direlarik. Sare honek duen informazioaren arabera, hainbat izan dira gertatutako erasoak, bai fisikoak, zein ahozkoak.

Jakin izan dugu ere, Udaltzaingoak ez duela biktimekiko tratu egokia izan. Norbanako batek eraso bat pairatzen duenean, ez du zertan azaldu erasotua izan den lekuan zertan ari ote zen. Erasotutako pertsonarekiko asistentziak beharko luke garrantzitsuenak, erasoaren larritasunarekin eta motibazioarekin batera. Kasu hauetan, begi bistakoa da eraso homofoboak izan direla.

Vitoria-Gasteizko Udalak honako adierazpena egin zuen aurtengo Maiatzaren 17aren harira:

*(...) Maiatzaren 17a Lesbo-Gay-Transfobiaren aurkako Eguna da. Hori dela eta, Gasteizko Udalak aniztasun afektibo eta sexuala eta era askotako genero identitateak goraipatzen dituen hiria aldarrikatzen du, heterosexualitatea arau ez duen hiri bat, lesbianen, gay-en, transexualen, bisexualen eta intersexualen kolektiboen (LGTBI) aurkako erasoak*

*zigorgabe uzten ez dituen hiri bat. LGTBIfobiak ez duelako norbanakoen askatasuna soilik arriskuan jartzen, jendarte osoaren ongizatea kolokan jartzen baitu (...)*

*(...) Vitoria-Gasteizko Udalak askotariko sexualitateak, generoak eta grinak ikustarazi nahi genituzke eta, hala, LGTBI pertsonen aurkako diskriminazioari, estigmatizazioari eta indarkeriari aurre egiten lagundu.*

Gasteizko Sare Transbollarikaren arabera, hauek dira Udalak aipatuako adierazpen instituzionalean jasotako konpromisoak gauzatzeko une ezin egokiagoak eta desiren praktikatuko sortutako espazioetan eraso homolesbotransfoboak jazo ez daitezen berma dezan, ondo dioten moduan, eraso hauek jendarte osoaren askatasuna arriskuan jartzen baitute.

Hauek baina, ez dira izan azken asteotan gure hiriko LGTBI kolektiboaren aurka izandako eraso bakarrak. Ezin delako ahaztu Hizkuntz-Eskola Ofizialeko ingelera irakaslearen kasua.

Honen guztiaren aurrean, Gasteizko Sare Transbollarikak dei egiten die herritarrei **asteazkenean, hilak 14, 19,30etan Andramari zurian** antolatu duen elkarretaratzean parte hartzera, eraso hauek guztiak salatzeke eta gure hiriko kaletan gorrotoak kabidarik ez duela argi uzteko.



## PRENTSA OHARRA

### NOTA DE PRENSA

2017/09/12

#### ERASO HOMOFOBO BERRIA GASTEIZEN

Gasteizko Transbollomarika Sareak gogorki salatu nahi du Andre Mari Zuriaren jaietan Gasteizko erdiguneko kale batean jazotako eraso homofoboa. Sare honek jakin ahal izan duenez, erasotua izan zen gazteak hainbat kolpe jaso zituen eta ondorioz aurpegia nabarmen markatua utzi zioten.

Eraso berria hau, Sare honek udan zehar erregistratu duen laugarrena da. Honez gain, Sareak LGTBI kolektiboko hainbat lagunek etengabeki pairatzen dituzten irainen berri ere badu, azken erasoak izan den eremu berean gertatzen diren irainak, hain zuzen. Kasualitatea edo, erasoak gertatutako eremua hainbat eraikin instituzionaletatik gertu dago, beraz, kamerek, poliziek eta segutasun-agenteeek erabat zaindutako zonaldea. Sareak erregistratutako lau erasoetatik, hiru kasutan salaketa aurkeztu da polizian eta gutxienez horietako kasu batean, erasotzaileak Ertzaintzak edo Udaltzaingoak identifikatuak izan dira.

Aipatu dugun moduan, eraso hauek guztiak bereziki zaindutako eremuetan gertatu badira ere, kasu berriak ezagutzen eta salatzen jarraitzen dugu, Gasteizko Udalak zonalde horretan polizien zaintza haundituko zuela iragarri bazuen ere. **Non daude udal zerbitzuak horrelako egoeratan? Zer nolako zaintza agindu eta eman da eremu honetan? Zelan gerta daiteke eraikin instituzionalak biltzen diren lekutik horren gertu erasoak etengabeak izatea eta INORK ezer ez egitea? Zertan ari dira?**

Oso egoera larriaren aurrean gaude, gure kaletan gertatzen ari den egoera larria eta inor ohartzen omen ez dela ematen du, intituzioek gertareoi muzin egiten dieten moduan. Maritxuen askatasuna garrantzi gutxiko kontua

da gure Udalarentzat, nahiz eta Nazioarteko Egun bakoitzean adierazpen instiuzionalak egin eta egunero gure kaleetan bertan lapurtzen diguten eta erasotua den askatasun sexualaren aldeko ekimenak antolatzen badituzte ere.

Erakunde inplikatu orori eraso homolesbotransfoboak ekiditeko lan egin dezaten eskatzen eta exijitzen diegu. Indarrean dauden protokoloak aktiba ditzaten, hauek hobetuz, Gasteiz askatasunez eta errespetuz bizi ahal izateko hiria izan dadin.

#### ERASOAK SALATZEKO TELEFONOA

Transbollomarika Sareak erasoak pairatu dituen lagunei edo erasoen lekuko izan direnei gurekin harremanetan jar daitezten eskatzen diegu, horretarako **633 309 563 telefonoa** baliatuz. Edozein adierazpen homofobo, lesbofobo edo transfoboren aurrean komisaldegian edo epaitegian salaketa jartzeak ezinbesteko garrantzia du eta horretarako Sare honek bere ateak zabalik ditu, laguntza edo aholkularitza emanez behar duen edonorentzat.

Oraindik ere gure desirak eta sexualitateak bizitzeko erak ikusarazteko zailtasunak dihardutela nabarmendu nahi dugu, barnehomofobia, armairua edo bestelako arrazoiak direla medio. Erasotzaileak aurre egiteko protokoloak, zerbitzuak edo kanpainak diseinatzeke eta abian jartzeko orduan egoera hauek guztiak kontuan har daitezela eskatzen dugu.

## HETEROARAUA, BORTIZKERIAREN HAZIA

Gasteizko Transbollomarika sarea, heteroarautik at bizi garenon aurkako erasoeri aurre egiteko, eta hauek ikusgarriak egiteko sortu da. Egun, eraso transfobo, lesbofobo, bifobo eta homofoboak areagotu egin dira, neurri batean lortutako lorpenengatik, ikusgarritasunak ere erasoen areagotzea ekarri ohi duelako. Hala ere LGTBIQ pertsonen eskubideak defendatzen jarraituko ditugu, eta hiri honetan emango diren eraso translesbohomobifobiko guztiak erantzungo ditugu.

Amorrua, kezka eta urduritasunak izan dira gure sorreraren zergaitia. Sarean egingo dugu lan, eta sistema heteropatriarkalak gure bizitzetan eragiten duen bortizkeriari aurre egitera animatzen diren guztiei gonbidatzen ditugu. Jendartearen indarkeria eta instituzioen gabeziei aurre egiteko sortu gara.

Guri dagokigun espazioa okupatzera gatoz, guri dagokiguna, garen bezalakoak izateko, eta garenaren protagonista eta bozeramaile izatera gatoz, inork gure izenean hitz egin ez dezan, gure bizitzak kontuan hartzeko eta esparru sozial guztietan LGTBIQ errealitatea barneratua izateko.

Chechenian, Irunen, Madrilen, Iruñean...eta hainbat tokietan izandako erasoak salatu nahi ditugu. Gure hiri eta herrietatik genero aniztasuna zapaldua izateko paseatzen egon den autobusa ez dugu ahaztu, eta ez dugu ahaztu nahi, estatu eta gobernuek gorrotoa zabaltzen aritzen diren elkarteekin duten jarrera.

Trans, bollo, marika, bisexual, trabesti, heteroflexibleak....gara Binarismoak itotzen gaitu. Sare bat gara, heteroarautik at bizi den sare bat, eta ikuspegi feminista eta interseksional batetatik lan egingo dugu.

Stonewallen ikasi genuen bezala, **gure genero identitateak, gorputzak, desirak isilarazten baldin badituzte, harriak izango dira hitz egingo dutenak.**

✉ [Transbollomarika.sarea@gmail.com](mailto:Transbollomarika.sarea@gmail.com)


👍 [transbollomarika sarea](#)

🐦 [@transbollomarik](#)



# 7. EZBAIA ETA ONDORIOAK

Sarea abian jarri denetik, guztira 15 kasu erregistratu dira (10, 2017an; 5, 2018an). Ondoren sailkatzen ditugu.




Azpimarratu behar dugu zelako aldea dagoen Sarean jaso ditugun kasu-kopuruaren eta Segurtasun-indarrek eta kidegoek jasotako kasu-kopuruaren artean. Hala, bada, guk 10 kasu jaso ditugu. Hau da, askoz gehiago ofizialki jasotakoak baino: gorroto-delituen 2 kasu, sexu-orientazioan eta género-identitatean oinarrituta.

Funtsezko faktore bi daude alde hori egoteako. Batetik, biktima askok ez du gorroto-delitu bati lotutako salaketarik jartzen, motibo desberdinak direla medio. Hala, partean erasoak baino ez da jasotzen. Bestalde, biktima batzuek ez dute ezta erasoak salatzen ere egiten. Bestalde, legeetan delituen tipologia zabaltzeko beharra dago: Zigor Kodeak ez ditu denak jasotzen, eta horrek zigorgabetasuna ekartzen du.

Udaltzaingoak emandako datuen arabera, 2017ko otsailaren 26an gertatutako eraso bat erregistratu da. Sareak ez zuen jaso, artean ez zelako existitzen.

## Erasoen tipologia

Tipologiaren arabera	Guztira	2017	2018 (Apirila arte)
Isekak	2	2	0
Zuzeneko diskriminazioa	8	5	3
Jazarpen diskriminatzailea	2	2	0
Intragéneroa	2	1	1
Askotariko diskriminazioa	1	0	1



Ikus dezakegunez, datuek halaxe erakusten baitigute, **jasotako kasu gehienak homosexualak edo transexualak izateagatik jasandako zuzeneko diskriminazioak izaten dira**. Zuzeneko diskriminazio horiek honela adierazten dira: zuzeneko irainak, erasoak edo diskriminazioa lan-eremuan. Gehien-gehienak oso espazio mugatuan izaten dira, eta sareak antzemandako etengabeko erasoen patroia betetzen dute.

Pertsonajakin baten aurka, ez, baizik eta LGTBI guztion aurkako gorroto-diskurtsoen bidezko isekak ere azpimarratu behar ditugu, “Hazte Oir” autobus transfoboaren kasu sonatuaz gain. Haren aurrean, erne egon ziren hiri askoko kolektiboak eta erantzuna emateko aktibismoa piztu zen. Hala, **azpimarratu behar dugu zelan eten zen Gasteizen autobusarena, eta zelan erantzun zitzaion, autoantolakuntzaren bidez, mezu homofoboak bota zituen Hizkuntza Ofizialen Eskolako irakasleari**.




Azpimarratzekoa da, bestalde, antzemandako 15 kasuen artean, bi izatea intragénero jazarpenarenak. Horrek lan sakona eskatzen du, konstante bihur ez dadin, orobat, aztertu beharko litzateke zer eginkizun betetzen ari diren kontaktu-aplikazioak eta sare sozialak komunikazio-forma berrietan.

Azkenik, zera nabarmendu behar dugu: askotariko diskriminazioko kasu bakarra antzeman dugun arren, tipa hori oso ohikoa da; pertsona horiengan batzen baitira ahultasun sozial handia dakarten zenbait faktore.

## Antzemateko bidea

Komunikabidearen arabera	guztira	2017	2018 (Apirila arte)
Komunikabideen bidez	3	3	0
Transbollarika sarearen telefonoaren bidez	8	6	2
Sare sozialen bidez	1	0	1
Zuzeneko kontaktuaren bidez	3	1	2



Ikus daitekeenez, sareak abian jarritako telefonoa izan da biderik erabiliena kasuak antzemateko. Uste dugu ahalegin handiagoa egin dezakegula bilaketa aktiboari dagokionez, batez ere sare sozialen bidez, haiek baitira informazio-bolumena hobekien maneiatzen dutenak. Egiaztatu ahal izan dugu, halaber, zenbat eta publizitate gehiago eman protokolori eta telefonori, orduan eta jende gehiago

agertzen dela lekukotasuna ematearen alde. Horrenbestez, etorkizunean lerro bi horiek landu behar ditugu.

## Ondorioak

Erasoak errotik kentzeko, bai eta behar bezala identifikatzeko, eta biktimei tratu egokia emateko, ezinbestekoa da disidentzia sexualeko kolektiboen laguntza. Gaur egun gure gizartean ikusgai izatea bidea irekitzen ari den honetan, ezinbestekoa dugu behatoki bat izatea, Gasteizen bertan, sexu-orientazioa eta género-identitatean oinarritutako gorroto-delituen aurka.

Gaur egun arte pilatu dugun esperientziari esker konturatzen gara proposamen hori ezinbestekoa dela; gaur egun, eraso gehienak zigortu barik geratzen baitira. Hori horrela izateko zenbait motibo dauden arren, zera azpimarratu dezakegu: motibo nagusia dela ukitutako kolektibo guztiek ez dutela haien arteko koordinazio antolaturik, eta horrek eragina duela erasoak jasan duten pertsonen amore ematean eta beren prozedurak amaieraraino ez eramatean.

Gainera, lan-sare bat ezarri behar dugu administrazioen, eragileen, kolektiboen eta LGTBI pertsonen artean, sexu-orientazioan eta género-identitatean oinarritutako gorroto-delituak erregistratu eta salatzeaz gain, haien kontra borrokatzeko. Lehenengo eta behin, erregistratu eta salatu behar ditugu delitu horiek, zein errealitatearen aurrean gauden jakiteko. Izan ere, LGTBI kolektiboko kideok hamaika eraso nozitzen ditugu gero ahazten direnak, eta ahaztura horren kontra ere borroka egin nahi dugu.

Duda barik, gure kaletatik gorrotoa kentzea, errotik kendu ere, sexu-orientazioan eta género-identitatean oinarrituta izaten diren erasoak dagokionez, LGTBI kolektiboarentzat ez ezik, herritar guztientzat ere onuragarria da, zuzenean eragiten duelako bizikidetzan eta errespetu handiagoko gizarte-eredu baten sorkuntzan.

Anekdotak gisa esan dezakegu ezen EUSTATEk Euskal Autonomia Erkidegoko 15 eta 29 urte bitarteko gazteei buruzko inkestaren arabera (2016), Arabako neskatuen % 85,5 sexu bereko pertsonen arteko ezkontzaren alde agertzen direla (Bizkaia 91,5%, Gipuzkoa 91,3%). Gure lurraldea da portzentaje txikiena duena. Horrenbestez, onartu behar dugu LGTBfobia errotik kentzeko ibilbide handiagoa egin behar dugula hemen, betiere onartuz gero zuzeneko lotura dagoela sexu berekoen arteko ezkontza arbuiatzearen eta homofobiaren artean.

Espero dugu, aldi berean, eremu publikoan ikusgaitasuna handitu ahala, erasoak ere gehiago izango direla. Izan ere, askatasunerako espazio gehiago konkistatzerakoan, LGTBIfobia sozialaren aurrean jartzeko aukera gehiago dago. Ezin dugu ahaztu, ordea, kasu askotan LGTBI batzuek askatasuna dagoela sentitzen dutela, eta pertzepzio hori faltsua dela. Hori gertatzen zaie batez ere sistemaren permisibitate berrietan egokitzen direnei, hau da, klase ertain edo altuko gizon gay zuriei. Óscar Guasch-ek gizonekiko homofobiaz planteatzen duenez, “XXI. mendeko Espainian, gay-ek aske direlako uste osoa dute, nahiz eta tarteka eta horretarako mugatutako espazioetan baino ezin diren gay izan. Elkar maitatzen eta ikusgai izaten uzten zaie, aurretik ezarritako testuinguruetan, arrotz bezain eskuragarriak direnak gainerako biztanleentzat. Gay jendeari egokitutako erreserben mugak gainditzen dituztenak, berriz, gay ez direnen biolentzia argi edo sotilaren aurriskupean jartzen dira”. Guzti honetaz gogoeta egitera behartzen gaitu egoera horrek: beharrezkoa da homofobiaren, lesbofobiaren, transfobiaren eta bifobia sozialaren aurkako borroka egitea, errotik egin ere, fobia horien guztien gainean fokua jarritz eta ez LGTBI pertsonen gehiegizko babesean.

# 8. GOMENDIOAK

## Zigorgabetasuna kentzeko beharra

Ikusi dugunez, 2017an antzemandako eraso gehienak hiriko espazio oso jakin batean gertatu dira, oso egoera jakin batzuetan. Gure ustez, segurtasun-indarrak eta kidegoak, batez ere Ertzaintzak eta Udaltzaingoak, modu proportzionalen eta efikazean jokatu beharko lukete erasoak ez daitezen zigortu barik geratu. Halaxe jasotzen du Gasteizko LGTBI biztanleriaren errealitateri buruzko diagnostikoak ere: hiriko zenbait espaziotan cruising-ean dabiltzan pertsonen babes eta segurtasun fisiko handiagoa ziurtatzeko neurrien ikerketa (udaltzain gehiago egotea LGTBI pertsonentzat “arriskutsutzat” jotako zonetan, gauzez batez ere).

## Poliziar prestakuntza emateko premia

Poliziar prestakuntza espezializatua emateko premia begi-bistakoa da aurkeztutako zenbait kasutan, lehentasunetariko bat bezala. Izan ere, segurtasun indarrek eta kidegoek ez dute eskaintzen erasoak jasan dituzten pertsonen jaso beharreko erantzuna. 2017an egindako egoeraren diagnostikoan ezartzen da, era berean, udaltzaingoaentzako prestakuntza espezifikoko proposamen bat, erasoen biktimak diren LGTBI pertsonen behar bezalako arreta emateko.

Gaur egun, sexu-orientazioan eta género-identitatean oinarritutako gorroto delituen gaineko prestakuntza Akademiako polizia desberdinek bete beharreko curriculum profesionalera mugatzen da. Prestakuntza hori ez da nahikoa, nabarmena denez. Izan ere, ez du errealitateko egoera sakon aztertzen, ez du sortzen profesionalen enpatia biktimekiko, eta, gainera, ez du erakusten tratu egokia eta egoeraren araberakoa ematen.

Gai honi buruzko prestakuntza-ikastaroak eskaini dira Gasteizko Udaltzaingoa, eta plazahutsak geratu dira. Horidakontua, eta are kezkatuagouztengaitu. Horrenbestez, ikastaro horiek derrigorrezkoak izatea eta prestakuntza-curriculumean sartzea proposatzen dugu.

## Osasun-profesionalei prestakuntza emateko premia

Zenbait kasutan egiaztatu daitekeenez, antzeman dugun arazo nagusietariko bat da osasun-zerbitzuetatik, batez ere larrialdi-zerbitzutik, ez direla antzematen LGTBIfobiaren ondorioz izaten diren erasoak. Horrek esan nahi du biktimak erasoaren egoera argitzeko erantzukizun osoa izaten duela, nozitu duen egoera traumatikoaz gain, jarraitzen duena sufritzen larrialdietan dagoenean. Zentzu horretan, uste dugu egokia dela osasun-langileek jarduera-protokoloak ezartzea, susmo txikiena ere badute izandako erasoaren atzean egon ote daitekeen gorroto-deliturik. Gainera, eta Gasteizko Diagnostikoak jasotzen duen bezala, funtsezkoa da osasun-eremuko profesionalen prestakuntza ematea, osasun arreta egokia eman diezaieten LGTBI pertsonen osasun-arazoei, ezagutza espezifikoa eta aplikatua bermatuz. Osasun-arloko profesionalen ere eman behar zaie prestakuntza, tratu pertsonal inklusiboa eta errespetuzkoa izan dezaten sexu eta género dibertsitatearekiko (lengoaia zaindu, aurrez ez ustea inor heterosexuala denik).

## Osasun-zerbitzuen, fiskaltzaren eta erakundeen arteko koordinazio handiagoa egoteko beharra

Hona 2017an antzemandako beste hutsunetariko bat: inplikaturako eragile desberdinen arteko komunikazio gutxi dago. Harritzekoa da Gorroto Delituen fiskal andreak ez jakitea zer gertatzen ari den Gasteizko kaleetan, nahiz eta Udaltzaingoak eta Ertzaintzak bai jakin.

Arazo hori aintzat hartuta, **proposatzen dugu erakundeen arteko ekipo bat egotea, zeinak sexu-orientazioan eta género-identitatean oinarrituta izaten diren gorroto-delituen edozein eraso edo eraso-susmoren berri emango baitu, erakunde bakoitzak horren gainean jardutea izan dezan bere eremuan.** Orobat, Diagnostikoaren beste gomendio bat ere jasotzen dugu: udalaren presioa, LGTBI kolektiboko kideen aurkako erasoak gorroto-delitutzat jo eta haren arabera juridikoki kudeatu daitezen.

## Sexu-orientazioan eta género-identitatean oinarritutako gorroto delituetan espezializatutako abokatuak jartzeko beharra

Zenbait lagunek adierazi dute ez dutela salaketarik jarri gura, ez direlako

justiziarekin fio, ezta egora-mota horiek jasotzen duten trataera juridikoarekin ere.

Egoera horregatik **proposatzen dugu abokatu espezialisten lan-poltsa bat sortzeko, biktimei eta elkarteei aholkua emateko erasoak daudenean** (sexu-orientazioan eta género-identitatean oinarritutako gorroto-delituetan espezializatuta). Eremu horretan ezinbestekoa da Abokatuen elkargoarekin lankidetzan aritzea.

## **LGTBifobiaren aurkako kanpaina espezifikoen beharra**

Lehen azaldu dugun lez, LGTBifobiaren aurkako borrokaren helburu nagusia izan behar du LGTBI pertsonetik gorrota sortzen eta zabaltzen duten jokabideak errotik ezabatzea gizartetik. Horretarako beharrezkoa da zenbait kanpainaren bidez mezu hau azpimarratzea: “Zero Tolerantzia” homofobia, lesbofobia, transfobia eta bifobiaren aurrean. **Komunikazio-kanpainez gain, ezin dira lagundu, ez zuzenean ezta zeharka ere, mota horretako mezuak botatzen dituzten pertsoneri, erakundeei eta presio-taldee.**

## **Eraso guztiak salatu behar direlako mezua zabaltzeko beharra**

Txostenean ikusi dugunez, eraso asko ez dira ezagutzen, ez direlako islatzen inolako komunikabideetan, zirkulu pertsonalean edo barneko zirkuluan izan ezik. Hori arazo larria da, eta zuzendu beharra dago. Horretarako, mezu hau zabaltzea beharra dago: batetik, badaudela kasu horietan laguntzen duten elkartek, datu horiek jasotzen dituztenak errealitatea hobeto ezagutzeko, eta, bestalde, oso garrantzitsua dela salaketa jartzea inolako erasorik erantzunik gabe gera ez dadin. Ezin dugu amore eman pitin bat ere erasotzaileen aurrean, eta guztion lana da borroka horretan laguntzea.

## **Eraso bat jasan duten pertsoneri laguntzeko protokoloak egokitzeko beharra (zentzu zabalenean)**

Tamalez, iraganean sufritu ditugu kasu batzuk non biktimek, eraso jasateaz gain, kalbario instituzionala sufritu dute, ez zegoelako protokolo argi eta erraz bat

pertsona horiek nola artatu azaltzeko. Funtsezkoa eta premiazkoa da, horregatik, dauden protokoloak eguneratzea. Diagnostikoak jasotzen duen bezala, **arreta emateko eta LGTBfobikoei erantzuna emateko protokolo bat sortzea edo orain dagoena eraso sexistetara zabaltzea, udal-antolakunde guztian sistematikoki aplikatzeko**. Protokoloak Udaletik haratago zabaldu beharko litzateke, eragile guztiak hartuta.

## **Tokiko Behatoki baten beharra**

Txosten honen zenbait ataletan jaso denez, orain hasiak garela datuak biltzen eta erasoen testigantza zuzenean emateko baliabide baten berri emanez, beharrezkoa da ekimen horri egitura egokia ematea, arreta eta zuzentasun handiagoa bermatzeko. **Horregatik ezinbestekoa da sexu-orientazioan eta género identitatean oinarritutako gorroto-delituen kontrako Gasteizko Behatokia izatea.**

# 9. BIBLIOGRAFIA

- L'Estat de la LGTBIfòbia a Catalunya 2016. Observatori contra l'Homofòbia de Catalunya.
- 122/000097 Proposición de Ley, de 12 de mayo de 017, contra la discriminación por orientación sexual, identidad o expresión de género y características sexuales, y de igualdad social de lesbianas, gays, bisexuales, transexuales, transgénero e intersexuales.
- Informe de Incidentes de Odio por LGTBFobia en la Comunidad de Madrid 2017. Observatorio madrileño contra la homofobia, transfobia y bifobia.
- Encuesta a las personas LGBT en la Unión (2013) de la Agencia de los Derechos Fundamentales. Unión Europea.
- EUSTAT. Jóvenes de 15 a 29 años de la C.A. de Euskadi que apoyan el matrimonio entre personas del mismo sexo, por territorio histórico, sexo y edad (%). 2008-2012-2016.
- Ley 14/2012, de 28 de junio , de no discriminación por motivos de identidad de género y de reconocimiento de los derechos de las personas transexuales.
- Memoria Delincuencial de la CAE 2017. Departamento de Seguridad. Gobierno vasco.
- Diagnóstico sobre las realidades de la población LGTBI en Vitoria-Gasteiz. Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz. 2017.
- Guasch, Óscar. 2006. Héroes, científicos, heterosexuales y gays. Los varones en perspectiva de género. Barcelona, Bellaterra, 2006.
- Comisión Internacional de Juristas (ICJ), Principios de Yogyakarta : Principios sobre la aplicación de la legislación internacional de derechos humanos en relación con la orientación sexual y la identidad de género, Marzo 2007, disponible en esta dirección: <http://www.refworld.org.es/docid/48244e9f2.html> [Accesado el 24 Abril 2018]



# GASTEIZEN SEXU ETA GÉNERO DIBERTSITATEAREN AURKA IZANDAKO ERASOEI BURUZKO TXOSTENA

2017ko APIRILA - 2018ko APIRILA



@lumagorrihat



@lumagorrihat69



@lumagorrihat



info@lumagorri.org



www.lumagorri.org